guaixe
SAKANAKO ASTEKARIA
2022-01-14 OSTIRALA / 801. ZENBAKIA / 2. AROA
SAKANAKO ASTEKARIA GUAIXE.EUS TOKIKOM

Dantzalekun ikuskizuna emateko prest

Igandeko Altsasuko Krosean Nafarroako espezialista onenak lehiatuko dira, Espainiako Txapelketarako txartel bila / 19-20

Pandemia hasi zen urtea 12 biztanle gehiagorekin itxi zuen Sakanak: 20.273 / 12-13

Altsasuko Udalaren aurrekontua %5,23 hazi da eta 8,5 milioikoa izanen da / 8-9

Garalurren intzailetza laguntzeko zerbitzuak 48 ekintzaile lagundu zituen / 12

Irurtzungo Barazki guneak estalpe finko berria izanen du udako festetarako / 7

Pandemia hasi zenetik 2021eko urte akaberara arte Sakanan 4.670 positibo izan dira / 5

Ikusle ugari eta maila handiko lehia Irutzun-Arakil Frontenis Txapelketan / 17

Anita Parker taldeak kontzertua eskainiko du bihar, larunbata, Lakuntzako kultur etxean / 21

Altsasuko auzian oinarritutako dokumentala mustuko dute asteartean, TV3n / 22-23

Jordi Arbizu, Mikela Cueli eta Asier Reparaz, amarauna proiektuko kideak. IRATI

"Gure helburua da gero eta jende gehiago hurbiltzea"

JORDI ARBIZU, MIKELA CUELI ETA ASIER REPARAZ AMARAUNA PROIEKTUKO KIDEAK

Ziordian badago gune bat non errota, "La Burundesa" lentzeria fabrika, III. gerra karlistako ospitale eta komentu izan ondoren, herriaren espazio bihurtu zena duela urte batzuk

Irati Altzelai Karasatorre ZIORDIA

Badira ia zazpi urte lagun talde batek lehenago komentu zena Amarauna proiektuan bilakatu zuenetik, eta ordutik espazioak garapen nabarmen bat jasan du. Hasieran, 2015ean, lau lagunek etxebizitzatzat hartu zuten, baina 2017ko udan espazioa erosteko aukerarekin topatu ziren, eta dirua hainbat bidetatik eskuratu ondoren, erosketa gauzatu ahal izan zuten. Orain Armiarma kooperatibaren barruko elkartea da eta etorkizunari begira hainbat erronka berri sortu dituzte: "erosketa ordaintzea, topagune erreferente bilakatzea eta komunitate egonkor bat sortzea". Bertako partaide direnek "irabazi asmorik gabeko elkarte eta kolektibo autogestionatu" gisa definitzen dute eta, bertan, herri mugimendu, norbanako eta kolektiboei egiten diete harrera.

Jordi Arbizu, Mikela Cueli eta Asier Reparaz proiektuko hiru kide dira eta espazioaren erosketaren inguruko nondik norakoak azaldu dizkigute. Esan dutenez, erabakia hartzerainoko prozesuan barne eztabaida eta desadostasunak egon dira, baina azkenean erosteko hautua egin zuten, "proiektua aurrera eramateko espazio segurua edukitzea eta ez zalantza izatea bertan gelditzen ahalko zen edo ez garrantzitsua zela" iruditzen baitzitzaien. Mojekin proiektua "ezegonkorra" omen zen, eta erosketa horrek Amarauna bezalako egitasmo handi bat aurrera eramateko "segurtasuna" ematen omen zien, egiten ari ziren lan horrek iraupen bat izango zuela ziurtatzeko.

Noski, prozesu horrek zailtasunak ekarri ditu, batik bat, "salerosketak ekarri duen burokrazia guztia, dirua bilatzea, hor bizitzeagatik ordaintzen hastea zorrak bukatu arte..." Horregatik, erosketa gauzatzeko *crowdfunding* bat egin zuten, inguruko jendeak dohaintzak egin zituen eta mailegu pertsonalak ere jaso zituzten; eta, jakina, beraiek ere dirua jarri behar izan zuten. Orain duten erronketako bat bilakatu da mailegu pertsonal horiek bueltatzea. Horrekin batera, azpimarratu nahi izan dute banketxeetatik kanpo eraman nahi izan zuten prozesu bat zela, eta hala egin zutela. Gainera, ez dute beraien jabetzatzat hartzen, Amarauna denon espaziotzat jotzen dute. Horregatik, gonbidatzen dute Sakanako jendea bertara maizago hurbiltzera, eta ohiko topagune bihurtzera.

Nondik dator ideia, lehenago izan duzuen antzeko esperientzia batetik?

Jordi. Ideia antzekoak izan badira, edo ezagut daitezke baina agian Arterra da gurekin antz gehien duena Nafarroan (Artiedan), baina ideia hemen sortu zen, Ziordiako espazioan bertan. Azkenean topo egin genuen aukera honekin eta bildu ginen jendearen artean, espazioa erabiltzeko aukera izanda, zerbait eraikitzen joan ginen.

Orduan lehendabizi espazioa aukeratu eta gero hemendik proiektua sortu zen, edo beste batzuen artean aukeratu zenuten espazio hau?

Jordi. Ez genuen aukeratu. Azkenean kasualitate eta zortea edo horrelako zerbait izan zen. Lau lagun ari ginen elkarrekin bizitzeko etxebizitza bilatzen, Sakanan, eta hainbat aukera aztertzen. Ez genuen gure gustuko ezer topatzen, eta lagun baten bitartez jakin genuen mojek komentutik alde egin behar zutela. Hori 2015ean izan zen, eta orduan lagun horri hona etortzea eskaini zioten espazioa zaintzeko-edo, ez zutelako espazioa hutsik utzi nahi. Lagun horrek ez zuen nahi izan, eta berak bazekienez gu etxebizitza bilatzen ari ginela, guri eskaini zigun. Horrela heldu ginen Ziordiara, etxebizitza bilatzen. Eta orduan, bertan bizitzen uzteaz aparte, mojek proposatu ziguten eraikin osoa erabiltzeko proiektu bat aurkeztea urte bateko epean. Orduan hasi ginen lau lagunok aukera hori jorratzen, hainbat pertsonarekin elkartu ginen eta proiektu bat sortzen saiatu ginen gune osoari erabilpen bat emateko. Eta horretan eman genituen bi urte, bazkideei zabaldu eta

talde eta kolektiboei eskaini arte, proiektua idazten berridazten eta ikusten ea gai izango ginatekeen eraikin honen mantentze lanak gure gain hartzeko edo ez, zalantza guzti horiekin.

Ikuspuntu askotatik begiratuta, Amarauna lurrean erroturiko proiektu bat da, ezta? Herrian, nekazaritza ekologikoan, herrigintzan, ingurumenarekiko loturan...

Mikela. Bai, Amarauna proiektuan sartzen dira balore horiek. Lur askoko gunea da eta hor egiten diren baratzak Amarauna proiektuko kide batzuen ardurapean daude. Hortik ateratzen den dirua kontsumo propiorako izaten da, haien soldatetarako, hortaz bizi direlako. Amaraunan bizi direnek ere baratze horretatik hartzen ahal dituzte barazkiak. Beraz, esango genuke Amarauna proiektua kontsumo propioa segurtatzeko eta modu ekologikoan landutako lurra erabiltzeko proiektua dela.

Eta hizkuntzari ere gainontzeko alorrei ematen diezuen garrantzi berdina ematen diozue?

Mikela. Gehienok euskaldunak gara, eta euskaldun ez direnak euskaldun berri dira, euskara asko entzuten dute, eta gero gure hautu kontzientez bilerak euskaraz egiten ditugu, beharrezkoa denean itzulpenak eginez; eta, gero, proiektuan haurrak ere badaude eta hor inguruan euskara ukaitea nahi dugu.

Laster bi urte beteko dira koronabirus delakoa bisitatzera etorri zitzaigunetik, nola eragin dizue zuei eta zuen proiektuari pandemia honek?

Asier. Koronabirusak hemen ere leku guztietan bezala eragina izan du, azkenean talde handiak ez dira egon bi urte hauetan, gehienbat bazkideak egon dira eta talde txikiak. Beraz, bai, alde horretatik bai nabaritu dugula. Pixka bat dena bezala. Orduan, ea hasten den orain pixka bat gehiago mugitzen; baina, hori, gehienbat bazkideak eta talde txikiak izan ditugu.

Egungoa hasierako ideiarekin bat dator, edo moldatuz joan zarete sortu diren egoeretara?

Asier. Hasieran sortu genuen proiektuaren helburu berdinarekin jarraitzen du. Herri mugimenduari zabaltzeko espazioa; orduan, bai, nahiko antzekoarekin jarraitzen dugu hasieran bezala, oraingoa hasierako helburu berdina da.

Jakina da duela gutxi espazioa erosi zenutela, nola izan da prozesua?

Asier. Hasieran, espazioa saldu nahi zutela esan zigutenean, asanblada asko izan genituen, barne bilera asko, eta desadostasunak ere egon ziren gure artean... Azkenean, erostea onartu genuen; baina, desadostasunak izan ziren, eta taldeko batzuek asanblada utzi zuten ez zutelako espazioa erosi nahi. Hala ere, hemen gelditu ginenok aurrera egin nahi genuen eta hala egin genuen.

Dirua nola lortu zenuten?

Asier. *Crowdfunding* bidez egin genuen. Inguruko jendearen dohaintzak ere jaso genituen. Zenbait jendek dirua utzi zigun. Gero zati handi bat ere mailegu pertsonaletatik lortu genuen. Gure helburua zen bankutik ez pasatzea, dena hortik kanpo egin nahi genuen. Beraz, 15 hilabete izan genituen dirua lortzeko eta horrela izan da, gehienbat mailegu pertsonalak eta bazkideak. Orduan orain mailegu pertsonal horiek bueltatu beharko ditugu, baina horrela lortu da jendearen dohaintzak, maileguak...

Jordi. Eta gure dirua, kar kar.

Asier. Eta gure dirua, noski!

Mikela. Eta gero ikusten zen ere gure proiektua aurrera eramateko espazioa segurua edukitzea eta ez zalantza izatea hemen gelditzen ahalko zen edo ez garrantzitsua zela. Erostearen erabakia hartu zelarik ere hori kontuan hartu zen, proiektua indartzeko garrantzitsua zela.

Jordi. Nik uste dut mojekin oso ezegonkorra zela proiektua, mojen menpe egotea eta beraien urtez urteko kontratu bat edukitzeak ez zigun ziurtasunik ematen eta guk ez genuen hau erostea pentsatzen, ez zen gure helburua hau erostea, baina mojek planteatu zuten hau saldu behar zutela.

Ez zenutela beste aukerarik, ez? Espazioa erosi eta galtzearen artean zegoela eztabaida?

Asier. Bai, bai. Gero Amarauna proiektua aurrera eramateko militantzia handia behar da. Espazioa oso handia da, lan handia dauka horren atzean. Lan asko dago eta zaila da dena kudeatzea. Orduan, bai ematen zigula segurtasun hori, proiektuak aurrera jarraitu behar zuela eta erosketarekin hori lortu genuen, segurtasun hori.

Mikela. Egonkortasun bat.

Asier. Egonkortasuna hori.

Jordi. Nahiz eta gero ere zailtasun batzuk ekarri dituen. Adibidez, erosketak ekarri duen burokrazia guztia, dirua bilatzea, hemen bizitzeagatik ordaintzen hastea zorrak bukatu arte... Zailtasun batzuk ekarri ditu, baina uste dut mojek ez zutela hau utziko guretzat ez doanik, ezta betirako ere.

Amarauna proiektuko txoko desberdinak. IRATI

Orduan, modu batean edo bestean bai eragin duela proiektuan, ez?

Jordi. Bai, bai eragin duela. Onerako, baina baita txarrerako ere, zailtasunak ere ekarri ditu.

Eta behin zuen jabetza izanda, zein dira etorkizunari begira martxan jarri dituzuen erronka berriak?

Jordi. Taldeei espazioa eskaintzea eta guzti horrek berdin jarraitzen du eta orain bai zabaldu dugula elkarbizitza proiektu bat non jende gehiago bizi gaitezkeen hemen. Mojena zenean ezin ginen hemen orain bizi gaitezkeen pertsona kopuru bera bizi eta horrek ere mugatzen zuen nolabait ere egitasmoa bideragarria izatea. Proiektua bideragarria izateko uste dugu garrantzitsua dela hemen denbora pasatzea eta batzuek bizitza hemen egitea. Bestela, espazioaren mantentze lanak, garbiketa eta taldeen harrera zailak dira gauzatzea bizitza hemendik kanpo egiten badugu. Eta orduan, aurten dugun erronka hori da, erostea erabaki genuenetik, egonkortasun horrekin hemen bizitzea. Elkarbizitza proiektu hori da eskuartean duguna gehienbat orain, ahal den neurrian hori sendotzea.

Mikela. Egiten ikastea ere, azkenean bakoitza bere aldetik bizi da, eta horretan ohituak gaude, bakoitza bere aldetik bizitzea. Eta orain, gauzak komunean jarri, adostu... Asanblada dezente egiten dira... Gainera, helburua ez da hemen jende asko bizitzea, baizik eta hemen daudenen artean oreka bat aurkitzea eta espazioa taldeendako edukitzea. Beraz, horretan gaude, orekak bilatzen.

Nik jabetza moduan izendatu dut, baina zuek hala hartzen duzue? Zuen jabetza gisa?

Asier. Ez, kooperatiba. Kooperatiba da honen jabe, ez da inorena. Azkenean jabetza Armiarma kooperatibarena da, orduan ez da inorena. Ez da honena edo bestearena, baizik eta kooperatibarena da. Bera da honen jabea.

Mikela. Eta gero hemen bizitzearekin kooperatibaren barruan sartzen zara eta konpromisoa hartzen da taldeen harreran, taldeen eta eraikinaren kudeaketan...

Jordi. Bai, eta dagoen zorrean ere kar, kar, kar.

Mikela. Eta zorrean parte hartzea ere bai, kar, kar, kar.

Orain ere urte berriari hasiera eman berri diogu, urte honetarako zerbait berezirik baduzue?

Asier. Gure helburua da gero eta jende gehiago hurbiltzea. Gustatuko litzaiguke Sakanako jende gehiago hurbiltzea, bagaude batzuk, baina, bai, gustatuko litzaiguke jende gehiago hurbiltzea, Sakanako jende gehiago eta gehienbat taldeak etortzea, hori da hasieratik genuen helburua eta hori da nahi duguna. Azkenean, espazio honi bizitza ematea eta horretarako taldeak eta kolektiboak hartzea, topaketak egitea... beharrezkoa iruditzen zaigu. Horretarako sartu gara honetan eta hori nahi dugu.

Mikela. Zubi lanak egitea orain Sakanako jendearekin, eta Amaraunara hurbiltzea eta denon topagune bihurtzea.

Jordi. Bai, nik uste dut urtez urte jende gehiago hurbiltzen dela, geroz eta gehiago ezagutzen da eta geroz eta bazkide gehiago ditugu, baina agian Sakanan ez dago beharrik ere, beti komentatu dugu herrietan badaudela azpiegiturak.

Mikela. Baina beharra izanez gero, hemen gaude.

ASTEKOA

MIKEL MAZKIARAN

Kolorezko koroak

Sakanan abesbatza ospetsuak ditugu. Altsasuko Erkudengo Ama abesbatza, berrogei urteko historia ospatuko du aurten. Edo Etxarri Aranazko Abesbatza, hirurogeita hamarreko hamarkadan parrokiako korutik sortu zena. Berriena Irurtzungo Abesbatza da, 2006an sortua. Hiru abesbatzek 2013an *Fran Idaretaren Taupadak* ekitaldian parte hartu zuten.

Antzerkian edo operan abesbatzak herria ordezkatzen du. Koru misto batean, herri baten antzera, ahots ezberdinak daude: sopranoa, kontraltoa, tenorrak eta baxuak. Ahots bakoitza desberdina da, baina guztiek aldi berean abesti bera abesten dute. Horregatik, koral bat entzuten dugunean, multzo harmoniko bat iristen zaigu, konposizio polifoniko bat.

Sakanako herri askotan parrokiako abesbatzak daude, non adin eta ideologia ezberdinetako pertsonek kantuan denbora pasatzen duten. Koru hauek elkar ulertzeko gune bat dira. Ordu batzuetan eztabaida politikoak edo familiarrak ahazten dira eta denak ados jartzen dira abesti bera abesteko eta abesbatzako zuzendariari kasu egiteko. Emaitza ahots ezberdinen multzo harmoniko bat da.

HERRIKO ABESBATZA, BERAZ, UHARTE BAT DA BEGIRADA OKERREN ITSASOAN

Herriko abesbatza, beraz, uharte bat da begirada okerren itsasoan. Baita topaketa errazteko modu bat ere, hau da, topaketa errestauratiboa.

Beste egun batean zehatzago hitz egingo dugu justizia errestauratiboaz; *Maixabel* filma adibide bat da. Orain aipatuko dudan gauza bakarra da taldean egiten diren justizia errestauratiboaren topaketak hainbat teknika erabiltzen dituztela elkarrizketa errazteko; pintura, jolasak, eta abar. Eta baita abesbatza bat ere, zergatik ez.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXEk eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutunak asteazkena 10:00ak baino lehen bidali beharko dira erredakziora. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, NA zenbakia, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

GUTUNA

Urtarrilak 29an mobilizatzearen beharraz

TELMO ZULAIKA

Ez dago langile klasearen egoera gero eta okerragoa dela uka dezakeenik. Gaur egun bizi dugun egoera esaldi batean laburtzerik balego, "gero eta pobrezia gehiago eta eskubide gutxiago" egokia litzateke. Egoera hau ausazkoa izatetik urrun, gizarte kapitalistaren krisi testuinguruan ulertu behar da, non, burgesiak abiatutako ofentsiba ekonomiko eta politikoak aski nabariak diren.

Dimentsio ekonomikoari dagokionez, azken boladan areagotu dira langileok jasaten ari garen etengabeko eraso kontaezinak: Zenbat kaleratze egon dira azken hilabeteetan? Zenbat garestitu da elektrizitatea? Eta alokairua? Egoera ekonomikoa gero eta okerragoa dela begi bistakoa da. Bizitzeko oinarrizkoak zaizkigun produktuen prezioek gora egin dute (%6ko inflazioa), lan ezegonkorrak zein langabezia eguneroko ogi dira eta soldata miserableetara kondenaturik gaude. Honek guztiak ondorio zuzena du, eta bizitzaren garestitzean gorpuzten da.

Ofentsiba politikoari erreparatuz, eskubide politiko eta sozialen urraketa agerikoa da. Enpresari handiak eta politikari profesionalek gero eta testuinguru autoritarioagoa ezarri dute birusaren aitzakiapean; kontrol sozialaren areagotzea eta polizia jazarpena normalizatzen doaz, osasun baliabideak hobetu beharrean.

Hau guztia kontuan izanik, egoeraren kudeaketan alderdi politikoek hartu dituzten erabakiek langile klasearen mesedera egotetik urrun, geratzeko datorren bizi eredu proletarioa finkatzea helburua dutela baieztatu dezakegu. Zentzu honetan, sozialdemokraziaren inpotentziatik kanpo proletalgoaren antolakuntza independente bat aurrera eramatea nahitaezkoa da.

Hartara, Gazte Koordinadora Sozialistak urtarrilaren 29an Iruñean deituriko manifestazioan parte hartzea ezinbestekoa dugu. Basakeria kapitalistaren aurrean oposizio erreala planteatu dezagun.

Burgesiaren diktadura gelditu! Ofentsiba ekonomiko eta politikoa borrokatu!

OBJEKTIBOTIK

Hozkailua bere bakardadean

Nabari-nabaria. tokiz kanpo dagoena hozkailua da. Etxe tresna elektrikoak erosten ditugunean zaharrak kentzeko, saltzaileak zaharra jaso beharra du. Internetez erosita dago etxe horretako hozkailu berria? Merkatalgune handi batean? Bukatu behar ez zuen tokian, kalean bukatu du. Halako kasuetan, gainera, Sakanako Mankomunitatera hots egin daiteke, Emausko Trapuketariak tamaina handikoak etxetik jasotzera pasatzeko eskatuz.

guaixe
SAKANAKO ASTEKARIA
www.guaixe.eus

Erredakzio burua: Alfredo Alvaro Igoa *guaixe@guaixe.eus*

Erredakzioa: Maider Betelu Ganboa *kirolak@guaixe.eus* eta Erkuden Ruiz Barroso *kultura@guaixe.eus*

Maketatzailea: Iune Trecet Obeso *maketazioa@guaixe.eus*

Publizitatea: Eneida Carreño Mundiñano *publi@guaixe.eus*

Koordinatzailea: Goizeder Anton Iturralde *fundazioa@guaixe.eus*

ARGITARATZAILEA: Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1. 31800 Altsasu 948 564 275 618 882 675

GK diseinu zerbitzua: Ainara Santiago Langarika *info@gkomunikazioa.eus* 948 564 275 (3 luzapena) 619 821 436 Ainhoa Etxeberria Pikabea *gk@gkomunikazioa.eus* 618 640 056

Administrazioa: Gema Lakuntza Lopez *admin@guaixe.eus*

Zuzentzailea: Oihane Mazkiaran Lopez de Munain

Kolaboratzailea: Irati Altzelai Karasatorre

Lege gordailua: NA-633/1995
Tirada: 3.200

Guaixek ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

LAGUNTZAILEAK

Mank sakana

BAZKIDEAK

mecna

Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua

Joan den astean haurren txanda izan bazen, aste honetan helduen txertatze txanda izan da.

Abenduan 1.487 COVID kasu zenbatu dituzte

Pandemia hasi zenetik 2021eko urte akaberara arte Sakanan 4.670 koronabirus kasuren berri jaso da. Joan den urtean 3.520 positibo zenbatu ziren Sakanan, haien %42,24 abenduan atzeman ziren

SAKANA

Osasunbidearen datuen arabera, Sakanan COVID-19 gaitzaren aurreneko kasu positiboak 2020ko martxoaren 9an atzeman ziren, kasu bana Etxarri Aranatzen eta Altsasun. Ordutik pandemiaren bost olatu pasa dira eta seigarrena bete betean jotzen ari da. SARS-CoV-2 birusaren Delta eta Omikron aldaerak ditugu gure artean. Eta azken hori askoz ere errazago transmititzen denez, jende gehiago gaixotzen ari da seigarren olatuan, nahiz eta, orokorrean, sintomak arinagoak izan.

Joan den urtean 3.520 koronabirus positibo zenbatu zituen Nafarroako Osasun Zerbitzuak Sakanan. Ilbeltzetik azarora 2.033 izan ziren eta abenduan bakarrik 1.487; azaroan baino %82,98 positibo gehiago. 2020an pandemia hasi zenetik 2021eko abenduaren 31ra arte 4.670 sakandarrek hartu dute gaitza. Haien %25,05 (1.170) 2020ean gaixotu zen, eta gainontzeko %75,37 (3.520) 2021ean. Joan den hilabetean pandemia guztiko positibo guztien %31,84 zenbatu ziren ibarrean.

Gaitzaren transmisioak bide beretik segitzen du aurten ere. Urte hasieratik asteazkenera arte 849 kasu zenbatu dira. Beraz, pandemia hasi zenetik herenegun arte, Sakanan, guztira, 5.519 positibo zenbatu dira.

Ilbeltzeko lehen hamabi egunetako positiboak horrela banatu dira herrietan: Altsasu 302, Etxarri Aranatz 121, Irurtzun 95, Lakuntza 53, Olatzagutia 50, Arbizu 45, Uharte Arakil 37, Iturmendi eta Urdiain hogeita zazpina, Ziordia 20, Bakaiku 18, Egiarreta eta Irañeta bederatzina, Arruazu 7, Dorrao 5, Izurdiaga eta Lizarraga launa, Hiriberri Arakil eta Unanu hiruna, Etxeberri, Etxarren eta Zuhatzu bina eta Aizkorbe, Errotz, Ekai eta Ihabar bana.

Herriz herri

COVID-19 gaitzak eragindako pandemiaren hasieratik 2021eko abenduaren 31ra Sakanako populazioaren %23,15 gaixotu zen COVID-19 gaitzarekin. Baina ehuneko horretatik gora sei udalerri daude: Urdiain %29,35 (194), Etxarri Aranatz %28,27 (706), Lakuntza %27,29 (348), Arbizu %26,6 (295), Iturmendi %25,55 (105) eta Irurtzun %24,61 (553). Sakanako kutsatzeen bataz bestekoaren azpitik bederatzi udalerri daude. Haietako bostetan biztanleriaren %20 baino gehiago kutsatu da koronabirusarekin: Irañeta %21,89 (37), Olatzagutia %20,54 (306), Altsasu %21,35 (1.142), Arruazu %20,75 (22) eta Uharte Arakil %20,41 (161). Gainontzeko lau udalerrietan gaitzak populazioaren %20 baino gutxiago jo du pandemia hasieratik: Arakil %19,13 (142), Bakaiku %18,06 (65), Ergoiena %17,03 (63) eta Ziordia %16,29 (57).

ABENDUAN 2020 GUZTIAN BAINO %27,09 POSITIBO KASU GEHIAGO IZAN ZIREN IBARREAN

Urte hasieratik 3.049 txerto jarrita

Urteko lehen txertoak haurrek hartu zituzten, Pfizer etxekoa hain zuzen ere. Ilbeltzaren 4an Leitzako eta Irurtzungo osasun eskualdeetako 465 haurrek txertoa hartu zuten Irurtzungo kiroldegian. Egun berean Etxarri Aranatz eta Altsasuko osasun eskualdeetako 384 haurrek Altsasuko Burunda kiroldegian jaso zuten txertoa.

Osasunbidearen txertaketa kanpainak aste honetan segida izan du. Etxarri Aranazko eta Altsasuko eskualdeetako pertsona helduek txertoaren hirugarren dosia jaso dute, kasu horretan Moderna etxekoa. Asteartean 1.460 txertatu izan ziren eta asteazkenean, berriz, 740. Txertaketa kanpainak heldu den astean izanen du segida Irurtzungo kiroldegian. Handik Leitzako eta Irurtzungo osasun eskualdeetako 1.512 herritar pasako dira hirugarren txertoa jasotzera. Haiek ere Moderna etxekoa hartuko dute.

2022ko kintoak.

Azkenean, kinto dira

Urte bat beranduago 2003an jaiotako altsasuarrak kinto izanen dira. Santa Ageda egunean haien ospakizuna hasiko dute, eta otsailaren 9ra arte zortzikoak dantzatuko dituzte, banan-banan, plazan. Horretarako dagoeneko entseguak egiten ari dira

Erkuden Ruiz Barroso ALTSASU

Altsasuko 2022ko kinta berezia da. Hasteko, 2021eko kinta izan behar zuelako. Hainbeste urte itxoin ondoren, Covid-19 birusak eragindako egoeragatik atzeratu behar izan zuten. Beraz, aurten 19 urte betetzen dituzten gazteak izanen dira kinto. Urte bat beranduago ilbeltzaren 6an, Errege egunean, eta tradizioari jarraiki, kintoak elkartu ziren bi erregeak eta bi erreginak aukeratzeko. Haiek izanen dira bost egunetako ospakizuna prestatzen arduradunak. Baita lehenengo zortzikoak dantzatzen lehenengoak ere. Ez dira bakarrik egonen, beste kintoen laguntza ez ezik, dantza irakasten ariko diren Txetxo Claver, Aitziber Etxaiz eta Maixabel Lopez de Uralderen laguntza izanen dute ere.

Ilbeltzaren 6a, beraz, egun oso garrantzitsua zen 2003an jaiotako altsasuarrendako. Urte bat itxoin ondoren, Santa Ageda ospakizuna gertuago ikusi zuten, eta lehenengo urratsa kintoen buruzagia aukeratzea zen. 57 kinto aurkeztu ziren, 32 mutil eta 25 neska. 2022ko kinta bereziaren bigarren berrikuntza izan zen, egun horretan, ohituraz udaletxearen batzar aretoan egiten den hautaketa Foru plazan, aire librean, egin zelako zozketa. Eta publikoa zenez, jende asko hurbildu zen karten banaketa ikustera. Gehienak kintoen senideak eta lagunak. Batzar aretoan egin ezin dena. Egoerak behartuta egindako aldaketa onerako izan omen da, eta agian datozen urteetan hautaketa plazan eginen du Altsasuko Udalak.

Hautaketa

Kartek aukeratzen dituzte Altsasuko kintoen buruzagiak. Funtzionamendua zera da: Altsasuko alkateak txanpon bat botatzen du eta gurutzea ateratzen bada mutikoekin hasiko da eta aurpegia ateratzen bada, aldiz, neskekin. Aurten gurutzea atera zen, eta lehenengoak, beraz, gizonezkoak izan ziren. Behin aurkeztutako kinto mutilak zirkuluan jartzen direla, alkateak pentsatutako zenbaki bat esan behar dute. Asmatzen duenak jasoko du lehenengo karta. Banan-banan guztiek karta bat jasoko dute, lehenengo erregea atera arte. Ondoren, kartak banatzen jarraituko du, bigarrena atera arte. Neskekin prozedura berdina egiten da.

Errege eta erreginak aukeratzeko tentsio uneak bizi izan ziren. Javier Ollo Martinez Altsasuko alkateak buelta bat eman zuen, bigarren buelta... Azkenean, Oier Cuerdo Larrazak jaso zuen lehenengo erregea. Ingenieritza elektronikoa ikasten ari da Leioako fakultatean, eta ez zuen espero errege izatea. Bigarren erregea hurrengo bueltan atera zen, eta Unai Calvo Fuentesek atera zuen. Sarrikoko fakultatean ekonomia ikasten ari da, eta nolabait errege aterako zela uste zuen, "zerbait sumatzen" zuen, "oso gafea naizelako". Ixone Rodriguez Sanchezek hartu zuen lehenengo erregea alkateak banatzen zuen lehenengo itzulian. Iruñean aho-hortzetako higienea ikasten ari da, eta harriduraz hartu zuen kargua. Hirugarren bueltara arte ez zen jakin nor izanen zen nesken bigarren buruzagia, eta, azkenean, Ainara Diaz Perezek hartu zuen karta. Biologia ikasten ari da Leonen. Kargua hartu ondoren kintoen izen abizenak jaso zituzten.

19 urte

Duela zenbait urte, kintoen ospakizuna soldaduskari lotuta zegoen. Milia egitera joaten ziren gizonezkoek osatzen zuten kinta, eta 19 eta 21 urte bitarteko gazteak izaten ziren Santa Ageda ospatzen zutenak. Denborarekin, eta derrigorrezko soldaduskaren desagerpenarekin, urtean 18 urte betetzen zituzten gazteak bihurtu ziren kinto. Pixkanaka-pixkanaka eta emakume askoren borrokari esker, nesken presentzia geroz eta handiago izaten joan zen, gaur egun arte, mutilak eta neskak ospakizunaren alderdi guztietan berdin parte hartzen dutelarik.

Kintoen gaztetasuna duela hamar bat urteko eztabaida izan zen. Bi ziren guraso eta irakasleak planteatzen zituzten arazoak: Kinto gehienak adin txikikoak ziren, eta ez ote ziren gazteegiak horrelako ospakizun handian parte hartzeko; eta egun batzuez, klaseetara huts egiten zuten. Azkenean, eztabaida hutsean gelditu zen, eta duela zenbait hamarkadako tradizioa mantendu zen; 18 urterekin kintoak izaten jarraitu zuten. Pandemia iritsi den arte. Derrigorrez, eta iazko pandemia egoeragatik, aurtengo kinto guztiak adinez nagusiak dira.

Ikasketak eta entseguak

Urte bat gehiago duten arren, ez dute uste eraginik izanen duenik ospakizunean. Bai, ordea, prestaketetan. Izan ere, unibertsitate edo goi gradutako ikasleak dira gehienak, eta Altsasutik kanpo bizi dira. Astelehenean hasi zituzten otsailaren 4ra arte eginen dituzten entseguak, eta askok ezinen dute ilbeltzaren bukaerara arte parte hartu ikasi behar dutelako. Kintoen errege eta erreginen kasuan, esaterako, Rodriguezek Iruñean ikasten duenez arazorik ez duela izanen aipatu du. Calvoren kasuan ere Bilbon bizi den arren azterketa garaian daudenez lau egunetan bakarrik joan behar duela aipatu zuen. Cuerdo eta Diaz, aldiz, ostiraletan edo 24tik aurrera egonen dira Altsasun. Hala ere, dagoeneko zortzikoa dakitela aipatu zuten, baita jota eta porrusalda ere. "Alde batetik, unibertsitatean gaudenez nolabaiteko askatasun gehiago dugu, baina, beste alde batetik, ikasi beharra dugu", aipatu du Cuerdok. Urte bat gehiagorekin ospatzeak alde onak eta txarrak ditu.

Ongietorri zapia

Ilbeltzaren 6an 2019an eta 2020an jaiotako haurrak lehenengo aldiz elkartu ziren, zapi banaketaren ekitaldian. Erroldatutako eta kanpoan bizi diren baina Altsasuko senideak dituzten haurren artean, 2019an jaiotako 72 haur zeuden deituta zapia jasotzera eta 2020an 47 haur. 2020ko eta 2021ko festetan jaso behar zuten oroigarria haurrek, baina pandemiagatik festak bertan behera geratu zirenez, Altsasuko Udalak ekitaldia Errege egunean egin zuen.

2019

2020

Barazkiguneak estalpe berria izanen du aurten

Egungo fatxada mantendu eta gaur egun karpa hartzen duen espazioan estalpe finkoa jarriko da. Metalezko habeen gainean egurrezko egitura duen teilatua jarriko da, eta gainean zinka. Argia sartzen uzteko tarteak utziko dira teiladuran

IRURTZUN

Garai bateko Irurtzungo barazkien azokak 2015az geroztik karpa bat du. Baina, gauzak ongi, udalak kokapen berria emanen dio aurki. Izan ere, Barazki Gunean estalpe finkoa egiteko asmoa du Irurtzungo Udalak. Lanak emateko deialdia egina du dagoeneko. Haietan interesa duten enpresek beraien hautagaitza hilaren 25eko 23:30era arte aurkez dezakete. Ondoren eskaintzak aurkeztu beharko dizkiote udalari, eta horretarako epea otsailaren 6an despedituko da. Lanek 229.573,99 euroko (BEZ kanpo) aurrekontua dute, eta haiek hartzen dituztenak lau hilabete eta erdian despeditu beharko dituzte. Epe muga garilaren 15a da, Irurtzungo festen aurretik.

Barazki Gunean jarriko den estalpearen proiektua.

Aitor Larraza Carrera alkateak azaldu duenez, "estalpe proiektuarekin espazio tradizional bat berreskuratzen da eta bere erabilera eguneratzen da, herriarendako leku sinboliko bat sortuz eta eskualdeko produktibitatea eta lehen sektoreko merkataritza eskaintza aktibatzea ahalbidetuz". Larrazak gaineratu duenez, "espazioa modu gardenean betetzea planteatu da, barruko espazioa ahalik eta balioaniztunena izan dadin, eta astearteetako azokako postu batzuk, kontzertuak, tailerrak, herri bazkariak edo herritarrek duten beste edozein aukera hartzeko".

Alkateak gogorarazi du udalak "bertako nekazaritza produktibitatea suspertzeko kezka" duela. "Sektore hori indartu eta aberastu nahi dugu, eskualdeko nekazaritza eskaintza zentralizatuz, Iruñeko potentzia ekonomiko komertzialaren aurrean" gaineratu du Larrazak. "Beraz, gune hori funtsezkoa izanen litzateke merkataritza postu berriak sortzeko, bertako produktibitatea eta herriko eta Sakanaren eskaintza komertziala areagotuz".

Alkateak azaldu duenez, behin estalpea eginda, Barazki Gunea zabalik gelditukо litzateke, plaza bat balitz bezala. Eta, geroz, gaur egun karpa erabiltzeko dagoen araudia bertan behera gelditukо litzateke. Azkenik, alkateak jakinarazi du karpa kendu ondoren beste erabilera bat emateko aukera aztertzen ari direla.

Egitasmoa

Gaur egun dagoen fatxada mantendu eginen da. Hala ere, goiko pinakuloak eta albardillak ordezkatuko dituzte. Fatxadako bost burdin hesi kendu, leihoen ertzetan corten altzairua jarri eta hutsunea publizitate panelekin beteko da. Fatxada garbitu eta margotu eginen da. Forjazko ateak mantendu eginen dira, baina kalerantz zabalduko dira. Barruan hormigoizko zola berria jarriko da, espazio osoa bateratuko duena eta Barazki Guneak hartuko dituen jarduerak ahalbidetuko dituena.

Estalpe berriaren morfologia merkatu zaharreko jatorrizko arkuetara egokituko da. Guztira 214,99 metro karratuko azalera duen estalpe bat eraikiko da. Teilatuak hainbat tolestura izanen ditu, w moduko elementu geometrikoa osatuz. Mendebaldeko orientazioko tolesturetatik argia barrura sartuko da. Estalpeak hormigoi armatuzko zimenduak izanen ditu eta metalezko zutabeen eta habeen gainean jarrita egonen da. Estalkiaren habe nagusiak eta gainerako habeak zur laminatuzkoak izanen dira. Hego aldean, gainera, porlanezko banku luze bat eginen da, 40 cm-ko altuera izanen duena. Egurrezko egitura gainean zinka jarriko da eta argia polikarbonatozko xafletan zehar sartuko da.

Estalpe berriaren fatxadak 2,71 metroko altuerara arte libre gelditukо dira. Altuera horretatik gora aurrealdeak pinuzko oholez estaliko dira. Euri-urak husteko, estalpeko zorrotenak lurzoruan dauden bilketa sistemekin lotuko dira, kutxatila eta kolektore berriak jarrita. Barruko argiztapena bi mailatan funtziona dezaketen LED zerrendekin aurreikusi da (%50 eta %100). Gainera, metalezko zutabeetako argi proiektagailuak jarriko dituzte. Kanpoko argiztapenak portada zaharra nabarmenduko du, LEDekin eta lurrean foku puntualak jarrita.

Kalean pentsio duinak bermatzeko eskaera

Egungo eta etorkizuneko belaunaldiendako pentsio sistema publikoa eta pentsio duin, justuak eta nahikoak izan behar dutela aldarrikatzera gonbidatu dituzte pentsiodunak, langileak eta gazteak. Bihar, 12:00etan, Altsasuko Foru plazatik, manifestazioa

SAKANA

Bihar lau urte beteko dira Hego Euskal Herriko pentsiodunen mugimendua mobilizatzen hasi zela. Urteurrena dela eta manifestazioak deitu dituzte, mugimenduko kideek kezkaz ikusten baitituzte gobernuak hartutako erabakiak.

Pentsiodunen mugimenduko kideek nabarmendu dutenez, "azaroan onartutako pentsioen erreformak ez ditu bertan behera uzten 2011ko erreformaren murrizketak". Eta kexu dira erreformak pentsioak urtero eguneratzeko aukeratu duen moduarekin: KPIan oinarrituta da, "baina neurrira egindako formula horrekin aurten pentsioen igoeran %3 galduko dugu" Nabarmendu dutenez, erreformarekin "gutxieneko pentsioak 1.080 eurotik oso urrun gelditzen dira, soldata eta pentsioetan genero arrakalak irauten du eta 40 urte kotizatu eta aldez aurretik jubilatu nahi dutenen koefiziente murriztaileak ez dira kendu. Eta gobernuak finantza erakundeek kudeatuko duten pentsioen sistema osagarri bat sortzeko konpromisoa hartu du".

Pentsiodunen kontzentrazioa.

Eskaerak eta lorpenak

Horregatik, mugimenduak gobernuari eskatu dio: 2011, 2013 eta 2021eko erreformetako aspektu atzeragarriak bertan behera uztea edo ez aplikatzea, pentsioen eguneratzean benetako KPIa berehala gehitzea exijitu dute, gutxieneko pentsioa 1.080 eurokoa eta lanbide arteko soldata 1.200 eurokoa izatea eskatu dute, "soldata duinik gabe pentsio duinik ez baitago. Horregatik PPren 2012ko lan erreforma bertan behera uzteko promesa bete behar da". Horri lotuta, genero arrakalarekin bukatzea eta alarguntze pentsioak %100ak izatea nahi dute.

Lau urteko borrokak emaitzak izan dituela nabarmendu dute: "kalean milaka eta milaka pentsiodun egoteak Pentsio Sistema Publikoaren inguruan gobernuek hartu beharreko erabakiak baldintzatu ditu". Eta 2013ko erreformako bi neurri indarrik gabe uztea lortu dute: pentsioak urtero soilik %0,25 igotzea eta jasangarritasun faktorea indarrean ez sartzea eta atzeratzea. Esan dutenez, "erakutsi dugu Gizarte Segurantzaren sistema publikoa erabat bideragarria dela".

GKSk foruzainak gaztetxean sartu izana salatu du

Pandemiarekin testuinguru "arriskutsua normalizatzen ari da: eskubideen urraketak, poliziaren jazarpena…"

OLATZAGUTIA

Sakanako Gazte Koordinadora Sozialistak (GKS) Olatzagutiko gaztetxean larunbat gauean izandako "errepresio erasoa" salatu du. Azaldu duenez, "foruzainak gaztetxean agertu, eta bertan zeuden gazteak aterarazi zituzten. Batzuk bortizki kolpatuz. Gazte bat buruan eta aurpegian borrarekin kolpatu zuten eta, ondorioz, sudurrean puntuak eta buruan grapak jarri behar izan zizkioten".

GKSeko kideen iritziz, larunbatean gertatutakoa "burgesiaren ekonomia eta politika ofentsibaren beste adierazpen bat baino ez da". GKSko kideen iritziz "pandemiaren testuinguruak neurri autoritarioagoak ezartzeko marko aproposa bilakatu da burgesiarendako". GKSk "ekonomia eta politika diktadurari, basakeria kapitalistari aurre egiteko mobilizatzera eta aldarrikapenak zabaltzera deitu du. Hilaren 29ko Iruñeko manifestaziora deitu du.

ALTSASU

Altsasuko Udalak 8.502.322,87 euroko aurrekontua du, 2021ean baino 444.907,87 euro gehiago. Bertan Aita Barandiaran egoitzaren patronatua eta Udal Musika eta Dantza Eskolaren patronatua sartuta daude. Javier Ollo Martinez alkateak azaldu duenez, "pandemiak sortutako aparteko beharrei aurre egiteko gastua handitu zen. Horregatik, 2021eko aurrekontuan udaleko zerbitzuen programei aplikatutako %10eko doikuntza aurtengo aurrekontuan birbideratzen da. Era berean, desagertu ondoren, 2022ko aurrekontuak berriro aurreikusten ditu festa, ospakizun eta ferietarako dirua".

Aurtengo aurrekontuak Geroa Bairen aldeko eta EH Bilduren kontrako botoekin aurrera atera ziren. Oposizioko koaliziotik adierazi zutenez, "aurrekontuan betiko diru sailak mantentzen dira, kopuru txikitan handitzen direnak. Aurrekontuak Altsasuren garapenari ez dio ekarpenik egiten. Etorkizuneko proiektuekin aurrera egiteko saiakerarik ez dago. Esaterako, udal eraikinetan energia autokontsumorako azpiegiturak jartzea".

Langileak eta erakundeak

Udalak aurten langileak ordaintzera aurrekontuaren %42,36 bideratuko ditu, 2.879.486,31 euro. Udaleko funtzionarioen eta lan kontratuko langileen ordainsariak %2 igo da. Ollok gogorarazi du 2021ean udalaren "langile gastuak nabarmen egin zuen gora, batez ere pandemiak sortutako ezohiko egoeraren ondoriozko udal-eraikinen garbiketa indartzeko". Jakinarazi duenez, garbiketa errefortzu hori "pandemiaren egungo egoeraren esparruan bereziki sentikorrak diren udal eraikinetan soilik mantenduko da: Zelandi eskola publikoan, Txirinbulo udal haur eskolan eta Aita Barandiaran adinduen egoitzan". Azkenik, Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren 45.000 euroko dirulaguntzarekin, eta udalak jarriko duenarekin, zortzi langabetu kontratatuko ditu urte erdirako.

Aita Barandiaran adinduen egoitzaren patronatuak 1.329.867,03 euroko aurrekontua izanen du, 277.866,75 euro udalak jarritakoa da, %2 gehiago. Aurrekontu zati handiena, 565.000 euro, erabiltzaileen tasen bidez lortzen da, eta aurrekontua Nafarroako Gobernuaren 487.000,28 eurorekin osatzen da. Bestetik, Udalaren Musika eta Dantza Eskolak 378.714 euroko aurrekontua izanen du. Haietatik 246.824,14 euro udalak jarriko ditu, 96.890,62 euro ikasleen kuotetakoa izanen da eta 32.000 euro Nafarroako Gobernuarenak.

Udal zerbitzuak

Kultura, festak eta ospakizunen zerbitzuak 225.272 euroko aurrekontua izanen du aurten. Dirua honako diru sailetan dago

Inbertsioak

Udalaren aurrekontuan hainbat inbertsio zehaztuta daude, baina, Ollok jakinarazi duenez, inbertsio gehiago eginen ditu udalak. "Inbertsio plan bat egingo da ilbeltza bukatu baino lehen, eta hango inbertsioak diruzaintzako gerakinarekin finantzatutako dira". Alkateak aurreratu duenez, inbertsioak eginen dira esaterako: udal haur eskolan, Amandrea plazan, kirol instalazioetan, kaleak konpontzean, bideak berritzean, industrialdeak hobetzean… Bitartean aurrekontuan jasotako zazpi.

Pergola

Geroa Baik eskatuta, Nafarroako Gobernuak Altsasuko Udalari 300.000 euro emanen dizkio kultur guneko zabalgunean 40 metro luze eta 18 metro zabalerako pergola eraikitzeko. "Gizarte, ekonomia eta kultura sare garrantzitsua duen udalerri bati dagozkion jarduera ugari garatu eta udalerria dinamizatzen lagunduko du", azaldu du alkateak. Ollok azaldu duenez, "proiektua egin aurretik, ideia lehiaketa bat eginen da. Profesionalek aurkeztutako proposamenetan udalak aldez aurretik zehaztutako premiak jaso beharko dira. Parte hartzeko prozesu baten bidez (bozketa) proiektua idazteko behin betiko ideia aukeratuko da, eta haren egileak izanen du hura egiteko ardura". Gobernuak

Haurren gozagarri diren bi erraldoi ordezkatu eginen ditu udalak. ARTXIBOA

Aurrekontua %5,23 hazi da

Haren helburua da "pandemiaren ia bi urteren ondoren, udala susperraldiaren bidean kokatzea. Baita pandemiaren ondorioz sortutako premiek eragindako ezohiko gastuek 2021ean eragindako aurrekontu doikuntzak leheneratzea ere"

banatuta: kultura jarduerak 78.000 euro (9.000 gehiago), euskararen arloko jarduerak 5.000 euro (2.000 gehiago), festetako jarduerak 80.000 euro (20.000 gehiago), peñen batzordearendako 9.000 euro (250 gehiago), abeltzaintza azoka 18.000 euro, txistularien kaleko emanaldietarako 5.224 euro, Altsasuko Gaitariak elkartearekin kontratua 2.500 euro, Haize Berriak bandarekin hitzarmena 22.000 euro eta arte erakundeendako diru laguntzen deialdia 5.548 euro. Gizarte ongizate zerbitzura 32.400 euro bideratu ditu udalak. Lau diru sail daude: irabazi asmorik gabeko erakundeendako dirulaguntza deialdia 8.000 euro (1.000 gehiago), garapenerako lankidetzako proiektuendako dirulaguntza deialdia 7.000 euro, La Union erretiratuen eta pentsiodunen elkartearendako dirulaguntza 13.900 euro eta DYA Navarrarekin kontratua 3.500, euro.

Gazteria eta kirol zerbitzuak hamaika bat kirol klubekin kirol eskolak kudeatzeko hitzarmenak sinatuak ditu Altsasuko Udalak. Haur eta gaztetxoen artean kirola sustatzeko udalak 138.495 euro bideratuko ditu, joan den urtean baino 10.349 euro gehiago. Dirua horrela dago banatuta eskolen artean: futbola 32.300 euro, saskibaloia 20.000 euro, gimnasia erritmikoa 13.100 euro, pilota 13.000 euro, taekwondo 12.780 euro, irristaketa 10.200 euro, txirrindularitza 9.895 euro, tenis 8.770 euro, atletismoa 8.600 euro, yoseikan budo 7.300 euro eta igeriketa 2.550 euro.

Joan den urtean bezala, erremontea sustatzeko 3.000 euroko diru saila dago. Horretarako, udalak hitzarmena sinatuko du Euskal Jai Berri fundazioarekin, E-Remonte enpresarekin eta Pilotajauku klubarekin. Bestetik aurten 75 urte betetzen dituen Nafarroako Saskibaloi Federazioarekin hitzarmen bat sinatuko du udalak, eta 3.000 euroko ekarpena eginen du. Haren bidez Altsasu Erriberri, Lizarra eta Iruñearekin batera junior mailako Espainiako saskibaloi txapelketako egoitza izanen da. Gainera, kirol elkarte eta klubendako dirulaguntzen deialdiak 20.000 euro izanen ditu. Azkenik, Gazteria Batzordearen 22.000 euroko aurrekontua izanen dute, aurrekoan baino 2.000 euro gehiago.

Ekonomia garapena eta mendia zerbitzura 32.200 euro bideratu ditu udalak, horrela banatuta: bideen mantenua egiteko 15.000 euro, baso lanen eta abeltzaintza azpiegiturak hobetzeko proiektu bana idazteko 6.200 euro (diruzaintzako gerakinarekin eginen ditu lanak udalak), ekintzailetza sustatzeko 4.000 euro bideratu ditu, Basoen Batzordearen jarduerek 3.000 euroko aurrekontua izanen dute eta ekonomia garapenekoak 4.000.

Hirigintza zerbitzuari dagokionez, Altsasuko Udalak eraikinetan inguratzaileak birgaitzeko jarduketak egitea sustatzeko ordenantza du. Haren bidez joan den urtean 8.000 euroko dirulaguntzak eman zituen. Horrelako lanak egin eta eraikinak termikoki egoki isolatzeko lanak egiteko bigarren plan orokorra eginen du udalak eta, horretarako, 3.000 euro inguru erabiliko ditu. Horrekin batera, hirigintza plana idazteko diru sailak ere jasoak daude udal aurrekontuan.

transferentzia egin bitartean, "udalak ideia lehiaketa arautzen dituen oinarriak onartuta ditu eta udal zerbitzu teknikoek beharrezko txostenak egiten dituztenean, oinarriak onartu eta prozesua martxan jarriko da" gaineratu du alkateak. Asmoa aurten egitea da.

Beheko ur hornidura berritzeko plana

Altsasuko Udalak plan bat eginen du beheko ur hornidura sarea berritzeko. Planean lehentasunak zehaztuko dira. Horretara 10.000 euro bideratuko ditu. Udalaren asmoa da urtero sarea berritzeko lanak egitea, eta, horrela, zuntz-zementuzko hodiak ordezkatzea, eta sare osoa sektoreka banatzeko. Azken horrek sor daitezkeen ur ihesak errazago atzematen lagunduko du. Lan horiek udalak berak edo laguntzen bidez finantzatuko dira.

Otadiako 3. sektoreko euri uren irteera sistema berritzeko proiektua idaztea

Urbanizazioa egin zenean ez zen euri uren sareko hodia Arakil ibairaino eraman. Hori egin beharrean, CHEren baimenik gabe, euri urak ur sare bateratu zahar batera isuri ziren. Baina sare horretako hodi zaharra ez da nahikoa euri ur guztia hartzeko eta uholdeak sortzen dira. Konpontzeko diruzaintzako gerakineko 7.000 euro bideratu dira.

Kultur etxearen fatxada

2011tik, gutxienez, fatxadatik ura sartzen da. Urik ez sartzeko fatxada garbitu, irekita dauden harrien arteko junturak birbatu eta kolorerik gabeko hidrofugozko bi esku emanen dira. Lanek 20.000 euroko aurrekontua dute.

Liburutegiaren itxitura akustikoa

Goiko solairuan ikasteko erabiltzen dute hainbat gaztek. Areto nagusian sortzen den zaratatik isolatzeko goiko partea itxiko du udalak. Horretarako, beirazko baranda eta kristalezko tabike modulu sistema jartzea aurreikusten da, aluminio lakatuzko arotzeriaz eta 5+5mm-ko segurtasun beiraz osatua, 34Db-ko isolamendu akustikoa sortzen duena. Lan horietara udalak 12.000 euro bideratuko ditu.

Autokarabanendako zerbitzu gunea

Autokarabanen erabiltzaileek ur garbia hartzeko, ur beltzak eta grisak husteko zerbitzugunea prestatu nahi du udalak. Gainera, eremua behar bezala seinaleztatuko da, bai tokian bertan, bai hiriguneko hainbat puntutan. Horretara udalak 16.000 euro bideratuko lituzke. "Autokarabanismoa urtetik urtera goraka doan turismo praktika da, potentzial ekonomiko ertaina edota altua duten pertsonek egiten dutena, hiri eta herrietako merkatutan, tabernetan eta abarretan gastatzen duena. Funtsezko zerbitzu bat eskainita, Altsasura gehiago etorriko lirateke", azaldu du alkateak. Karabana gunea herrian egonen litzateke. Bi aukera aztertzen ari dira udalean: Aminanespila kalea, Zelandi kirol gunearen ondoan, eta Otadia ingurua. Inbertsio hori eta aurreko biak egin ahal izateko, Altsasuko Udalak San Pedro A-2 taldean duen etxebizitza enkante publikoan saldu beharko du.

Erraldoi berriak erosi

Altsasuko erraldoi konpartsak lau irudik osatzen dute kinta, kintoa (2019an erosiak), momotxorro eta sorgina. Azken bi horiek XX. mendeko 90eko hamarkadan erosi ziren eta hondatuta daude. Irudiak dantzarazten dituztenen proposamenari segituz, udalak horiek ordezkatzeko bi erraldoi berri erosi nahi ditu eta, horretara, 12.000 euro bideratu ditu. Udalaren ideia da aurtengo festetan mustutzea bi erraldoiak.

KOLABORAZIOA

Burundako bi muturretako herrien izenak

JOSE LUIS ERDOZIA MAULEON

Bakaiku

Wikipedian, Bakaiku Nafarroako toponimo nagusi arraro edo arrotzenekotako jotzen dute eta bere esanahi etimologikoa ezezaguna dela esan ere bai. Bertan diote Caro Barojak izen oso arrarotako zuela eta pentsatzen zuen harremanetan egon zitekeela izen latindar edo jentilizio batekin: *Vaccaeciona(m)*. Egun bai oporleku ederra hirietako eromenaz ihesi nahi duenarendako bereziki, baina ez dut uste oporretako eremua izanen zenik izena jarri zioten garaian. Baina txantxa, broma edo dena delakoak alde batera utzi eta goazen harira.

Izena dokumentaturik ageri zaigu XIII. mendearen erdialdetik hasita eta, gainera, esan behar da ez dituela aldaketa handirik ezagutu, grafia kontuak aparte. Ondorengo guztiak eta beste zenbait gehiago jaso ditu Jesus Ondarra bakaikuarrak *Bakaikuko leku-izenez hausnarrean* (2019, 136-137) liburu ederrean: *Bacayco* (1257), *Bacaycu* (1268), *Bacaycua* (1337), *Uacaycu* (1350), *Baçaycu* (1350), *Vacaycua* (1366), *Bacaycua* (1417), *Bacaycoa* (1572).

Ondarrak berak esaten du herriaren izena idatzirik aurkitzen dugunetik gaur arte, bi aldaera izan direla iraun dutenak: *Bacayco/Bacaicoa* eta *Bacaycu/Bacaicua*. Lehena administrazio erdaldunean eta bigarrena bertakoek erdaraz.

Bistan da, batean zein bestean, osagai bakarra dela ageri-ez ageri dabilena, *-a* mugatzailea. Egungo estandarrean bezala, *-o* + *-a* > *-oa* administrazioarenean eta burunderan bezala, *-o* + *-a* > *-ua*, herritarrenean (besotako + -a > *besotakua*, amointo + -a > *amointua*, ajolabaiko + -a > *ajolabaikua*…)

Hortik aurrera herriaren izenaren esanahia zein ote den antzematen zaila dela esaten du Ondarrak eta zailtasun hori berrestera dator artikuluaren hasieran esandakoa. Hala ere, Ondarra jauna ausartu da Bakaiku toponimo nagusiari buruzko osagaien gainean zerbait esaten eta neu ere ausartuko naiz nire iritzia azaltzen, Ondarrak emandakoak (2019, 138) ez bainau asebetetzen.

Ikertzaile bakaikuarrak "teoria edo kondaira bat"

darabil, honen aldeko hainbat argudio bilatu nahian, amaieran onartzen badu ere "Ene irudiko, Bakaikuk, bere izenaren esanahia dela eta, iluntasunean dirau". Aipatu kondairak, dirudienez, *Bakarrekua* etxe-izenetik eratortzen du herriaren izena eta "hasiera batez lekuan omen zegoen etxe bakarrak (Bakarrekua), nonbait bere ondoan gero hazi egingo zen herriari izena emango ote ziola esaten duena". Baina, noizkoa ote, bestela ere (*bakarreko*-tik *bakaiko*-rako bide zaila), aipatu etxea?

Inguruko herri gehienek etxeak elkarri lotuta edo atxikita izaten zituzten eta, kasu honetan, bistan da, hau izanen zen eraiki zutenean modu horretan egindako lehena.

Nire ustean, beste batzuk dira Bakaiku izen nagusiaren osagaiak eta horiek, gainera, pentsa daiteke egun baino zentzu gehiago dutela orduko hartako herriaren deskribapena edota kokapena adierazteko orduan:

bago + *-di* + *-ko* + *-a*.

Lehen osagaiaren amaierako bokala, *bago/pago/fago*, eratorpenean eta konposizioan ireki eta /a/ bihurtzen da (zulo + -tu > *zulatu*, beso + -pe > *besape*, asto + putz > *astaputz*…) eta eztarriko kontsonante ahostuna, aldiz, ahoskabe bihurtzeko edo alderantzizko joera ere izaten du (*gider/kider, gartzela/kartzela, gate/kate, gurutze/kurutza, begigain/bekain*…); bigarrenaren hasierako kontsonantea, *d/r* txandaketa edo alternantzia medio seguruenik, erori egiten da (*fagai* < **fagari* < *fagadi/fagadei* Etxarrin); eta, azkenik, /o/ bokalez amaitzen diren hitzak mugatzerakoan, /u/ bokal itxia hartzen dute Burundan eta ondoko Aranatzen ere lehentxeago esan dudan moduan: *zulo* + *-a* > *zulua/e*, *basoko* + *-a* > *basokua/e*.

Bagadiko(a) > *Bakaiku(a)*, orduan azaldu berri ditudan bilakabideak kontuan izanez gero. Orain bakarrik falta da ziurtatzea garai bateko pagadia, herria jaso zen eremuraino iristen zen ala ez, baina hori ez da eginkizun erraza. Hala ere, esan behar da, pagoa badela egungo herriaren eremuan eta horren zuhaitz inbaditzailea izanik (ikusi Etxarriko *Bordazelei* eremua, Bakaiku baino altuera gutxiagoan dagoena), ez zuen arazorik izanen bertan hazteko.

Arakil haranaren ekialdetik dagoen Izako udaleko Larunben, Larrainziz auzoko eremuan (herri desagertua) 1577ko dokumentu batean, ondorengo toponimoa ageri da bertako baten jabegoaren zerrendan: "*4. Ítem en el término llamado* ***Bagadion*** *otra pieça de quatro robadas*…" Eta dokumentu horretatik ateratako toponimoen zerrendan, ***Bagadi ondoa*** ere bai.

Bagadi + *-koa* Burundan, *bagadi* + *on(doa)*, Larunben.

Ziordia

Eta Burundan bertan, mendebaldeko muturrean, dago Ziordia, Bakaikuren antzeko osagaiak dituen toponimo nagusia.

Orotariko Hiztegian, 'zigor' sarrerako lehen adierako adibideetan honelaxe dator:

"*Cf. IC II 77: "Ciordia, vocablo vascongado, quiere decir 'lugar de varas o varillas'*."

Eta Izagirrek Altsasun eta Oñatin jasotako lexikoa baliatuz ere bai Orotariko Hiztegian, aurrekoa bezala adibideetan: "*Iz Als. 'La vara delgada y flexible' Iz ArOñ. "Junco flexible. Ziorrezko otzarak eitten ibai-onduan ikusten ziran motxallen andrazkuak*"

Antzeko osagaiak dituztela Burundako bi muturretako herriek esan dut lehentxeago, ezen azken finean, hasieran fitonimo bat (zuhaitz, zuhaixka edo landare izena) daramate, eta jarraian *-di* atzizki eratorlea. Ziordiak amaieran *-a* mugatzailea ere bai eta Bakaikuk *-ko* leku-genitiboaren morfema eta, XIV. mendetik hasita behintzat, *-a* mugatzailea ere bai.

Zi(h)or + -di + -a, beraz, Ziordia toponimo nagusiaren osagaiak. Zurtoin luzeak eta malguak dituen belar landarea, oso toki heze eta bustietan hazten dena izanen genuke *zi(h)or* (zigor) hori, hau da, ihia (*txunka* Bakaikun, *txunga* Urdiainen, *iya* Altsasun) eta, orduan, toponimo nagusiak aipatu landare malgua dagoen lekua adieraziko luke.

DUELA 25 URTE...

Jolas parke berria

Hiriberriarrek auzolanean jolas parkearen lehen fasea despedituta zuten. Horren ondorioz, haurrendako txirrista eta zabuak jarri zituzten txikienen gozagarri. Parkerako sarbidearen alde banatan banku bana jarri zituzten, gurasoak eseri eta haurrei begira egoteko moduan. Horrekin batera iturri berezia ere jarri zuten: bostehun kiloko harrian Euskal Herriko metalezko mapa txertatuta eta iturria Hiriberri Arakili mapan dagokio tokian jarrita.

Altsasuko udaletxea. ARTXIBOA

Mank-i aurrekontua birformulatzeko eskaera

Altsasuko Udalaren iritziz Mank-i egin beharreko ekarpenak ez dira egokitzen ibarreko erakundearen estatutuetan aurreikuspenekin. Udalaren Mank-endako ekarpena 120.687,03 euro igo da, “baina igoera hori ez dago behar bezala justifikatuta”

ALTSASU

Altsasuko Udalak Sakanako Mankomunitateari ordaindu beharrekoa joan den urteko 613.632,63 eurotik aurtengo 734.319,66 eurotara pasa da. 120.687,03 euroko aldea. Udal teknikarien txostenetan oinarrituta, Altsasuko Udalak Mank-en aurrekontuei alegazioak aurkeztea erabaki zuen astelehenean. Alkatetza duen Geroa Baik alde bozkatu zuen eta EH Bilduk kontra. Altsasuko Udalaren ustez, "igoera hori ez dago behar bezala justifikatuta". Horregatik, alegazio bidez Mank-i eskatu dio bere aurtengo aurrekontua berraztertzeko. Alkateak gogorarazi zuen ibarreko erakundearen aurrekontua onartzeko bilera deialdia egin zenean eskatu zuela Mank-en aurrekontu onarpena gai ordenatik kentzea, kontuak Mank-en eta udalaren artean berraztertzeko.

Altsasuko Udalak aurkeztutako alegazioetan argudiatzen du, batetik, "Mank-ek udalen ekarpenak finkatzerakoan, bakoitzak atxikita dauden zerbitzuengatik zenbat ordaindu behar duen ezarri behar dute, baita zerbitzu horiei egotz dakizkiekeen gastu orokorren zati proportzionala zehaztu ere". Ibarreko erakundearen aurtengo aurrekontuetan aldaketa izan dela nabarmendu du Altsasuko Udalak. Eta, horretarako, Mank-en kontu hartzailetzak 2022ko aurrekonturako egindako txosten ekonomiko finantzarioan oinarritu da: "diru sarreren atalean, zerbitzu orokorren gastua lehenago Mank-eko zerbitzu guztien artean banatzen zen, zerbitzu bakoitzari gastu orokorraren zati proportzionala esleituz. 2022ko ekitaldi honetan, ur-zerbitzuari eta berdintasun-zerbitzuari dagokien zatia baino ez da bereiziko". Altsasuko Udalaren iritziz, "ekarpenen aurrekontua egiteko modu horrek urratu egiten du Estatutuen 37.2 artikulua; izan ere, ez du zerbitzu orokorren gastua Mankomunitateko zerbitzu guztien artean banatzen, ur eta berdintasun zerbitzuetarako baizik".

Zerbitzuez

Udalak Mank-en aurtengo aurrekontuan zerbitzuen sarreren eta gastuen zerrenda ikusi du orekatua dela. Baina "hor ikusten da gastu orokorrak ez direla banatu". Gaineratu duenez, "ur zerbitzuko diru sarreren soberakina finantzaketa defizita duten zerbitzuak finantzatzen ari da. Gauza bera gertatzen da hondakindegiarekin, nahiz eta Mank-eko Kontuhartzailetzaren txostenean ohartarazten den industria tasek hondakindegia ixteko sortu behar den funtsa finantzatu beharko luketela, eta, berez, hondakinen zerbitzuaren defizita finantzatzen ari direla".

Aldi berean, Udala Ur Zerbitzuari erreparatu dio: "udalerri bakoitzari fakturatutako m^3 kopurua da aplikatutako gastuak banatzeko irizpidea. Irizpide hori mantentze gastuen banaketari aplika dakiokeen arren, ez litzateke inolaz ere aplikatu behar finantza eta inbertsio gastuei, gastu horiek ez baitaude fakturatutako kontsumoaren mende". Gaineratu duenez, "Estatutuetan ez da inon jasotzen m^3-en kontsumoa Ur Zerbitzuan dauden udalerrien artean banatzeko irizpidea denik".

Azkenik, Altsasuko Udalak alegazioetan argudiatu duenez, "udalek zerbitzu bat finantzatzeko egiten dituzten ekarpenetara jotzea azken aukera izan beharko litzateke; izan ere, estatutuetan aurreikusten denez, udalek Mank-en zorrak ordaintzeko betebeharra izanen dute soilik beren baliabide propioak nahikoa ez direnean". Gaineratu duenez, "Mank-en aurrekontuaren espedientean agertzen den dokumentazioan aitortzen da ez direla tasak igoko, eta, beraz, Mank-ek baliabide propioak izan ditzake udalen ekarpenak handitu beharrik gabe".

Udalak eraikinen zaharberritzeari bultzada eman nahi dio

Lehentasunezko birgaitze eremua mugatzeko espedientea martxan du, dirulaguntzak jasotzeko bidea

ARAKIL

Arakilgo Udala bere Plan Orokorrean moldaketa bat egin eta lehentasunezko birgaitze eremua mugatzeko espedientea tramitatzekotan da. Udalak onartu ondoren Nafarroako Gobernuari emanen diote erabakitakoaren berri. Eta Oihana Olaberria Jaka alkateak azaldu duenez, urteko bigarren erdialderako indarrean egotea nahi lukete.

Lehentasunezko birgaitze eremu izendapena lortuta, eraikinen zaharberritzeagatik eta lan horiek egiteagatik dirulaguntzak eskuratzeko aukera izanen da. Izendapen berriak zer ekarriko duen azaltzeko jardunaldia antolatu zuen Arakilgo Udalak herenegun. Udal arduradunek azaldu zuten eraikin batean zaharberritze lanak egin eta dirulaguntzak jasotzeko baldintza batzuk bete beharko direla, esaterako: etxebizitza gisa erabiltzea, antolamendutik kanpo ez egotea, Arakilgo Udalak izendatzen duen Esku hartze Orokorreko Plan baten bidez izendatzen dituen lehentasunezko zaharberritze eremuetan egotea.

Hirigintza planaren parte hartze prozesua zabaldu du udalak

Proposamenak: udaletxean, 'info@uhartearakil.com' edo 'egoitzaelektronikoa.uhartearakil.eus'

UHARTE ARAKIL

Nafarroako Gobernuarekin finantziazio hitzarmena sinatu ondoren, Uharte Arakilgo Udala 1991ko hirigintza plana berritzen hasi da. Udalean hura garatzeko talde motorra sortu zen. Lurraldearen Egitura eta Okupazio Eredua (EMOT gaztelaniaz) behin betiko onartu eta Aurretiazko Kontzertua sinatu ondoren, hirigintza plana egin behar da. Baina, horren aurretik, udalak abenduaren 20an beste pauso bat eman zuen: uhartearrek parte hartzeko epea zabaldu du otsailaren 7ra arte. Ordura arte, herritarrek iradokizun eta proposamenak egin ditzakete.

Horretarako, aurretiazko dokumentazio laburtu bat egin da, hiri lurzoruari eta lurzoru urbanizagarriari buruzko informazio garrantzitsuenarekin. Dokumentazio hori antolamendu xehatuko planoek, sailkapen planoek, lurzoru kategoriek eta egikaritze unitateek osatzen dute, eta bertan, aprobetxamenduaren kalkulua eta indarrean dagoen hirigintza legeriak eskatutako lagapenak justifikatzen dira. Dokumentazio hori udalaren *www.uhartearakil.com* webgunean, informazio paneletan eta udaletxeko bulegoan izanen da. Uhartearren ekarpenak aztertu ondoren, udalak hirigintza plan osoa egin eta haren hasierako onarpena eginen luke.



SAKANAKO ENPRESA BAT
TXIMINI ETA ZERAMIKA TEKNIKO-KOMERTZIAL
BILA DABIL
Curriculuma:
ag14@asesoriagoikoetxea.es

Pandemia garaian ekintzailetzak gora

Cederna Garalurrek 48 ekintzaile lagundu ditu eta 23 enpresa sortzen lagundu zuen joan den urtean. Harremanetarako 639 900 336 (Susana) telefonora hots egin edo 'sakana.admon@cederna.es' edo 'sakana@cederna.es' e-postetara idatz daiteke

SAKANA

Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuak kofinantzatutako Emprende Sareko bazkide da Cederna Garalur elkartea, eta ekintzailetzari laguntzeko zerbitzua eskaintzen du Sakanan. Elkarteak jakinarazi duenez, joan den urtean 48 ekintzaileri lagundu zien. Haietako 26 gizonezkoak ziren eta 22 emakumezkoak. Aholkularitza horren ondorioz, Garalurrek 23 enpresa sortzen lagundu zuen, eta, ondorioz, urtean 24 pertsonak eman dute alta eskualdean langile autonomo gisa. Negozio berrien forma juridikoari dagokionez, 22 enpresaburu indibidual gisa eratu dira, eta bat sozietate irregular gisa.

Elkarteko arduradunek nabarmendu dutenez, "COVID-19aren pandemiak eragindako osasun krisiak eta horren ondorioz esparru guztietan nagusi den ziurgabetasun inguruneak eragindako urte zaila izan den arren, artatutako pertsonen eta sortutako enpresen kopuruak nabarmen handitu dira". Garalurretik azaldu dutenez, "artatutako pertsonen kopurua %60 inguru handitu da eta sortutako enpresen kopurua %50 baino gehiago. Horrek erakusten du landa ekintzailetzak osasun oso ona duela".

Ekintzailea ikasleei azalpenak ematen.

Beste zerbitzu batzuk

Ekintzailetzari bulkada emateko Garalurrek 2021ean bi urte baino gutxiago duten hamabost enpresa eta bi urte baino gehiago duten sei enpresa lagundu eta aholkatu zituen. Horretaz aparte, gazteei zuzendutako ekintzailetza esperientziei buruzko tailerra antolatu eta eman zuen. Bestetik, eskualdeko ekintzailetza esperientziak zabaltzen eta dinamizatzen lagundu zuen, eta beste erakunde batzuek sustatutako ekintzailetzarekin lotutako hainbat ekitalditan parte hartu zuen, esaterako, Nafarroako Enplegu Zerbitzuarekin. Gainera, ekintzaileei eta autonomoei zuzendutako online tutorialak eman zituen, beti ere, haien interesak kontuan izanik. Horietan sakanadarrek ere parte hartu zuten.

SARE

Salbuespen legeen kontra

Sarek deituta, Sakanako 14 herrietan kontzentrazioak egin ziren larunbatean. Saretik gaztigatu zutenez, "oraindik euskal presoen %50 Euskal Herritik kanpo diren espetxeetan dago. Hirugarren gradua eskuratzeko edota irteera baimenak eta baldintzapeko askatasuna eskuratzeko blokeo sistemiko baten aurrean aurkitzen gara". Larri gaixo dauden presoak, adinduak eta umeak ere gogoan izan zituzten. "Salbuespenezko espetxe politika da euskal presoek etxerako bidea garatzeko oztopo eta muga nagusia"esan zuen Sarek.

Sansaastinak bueltan dira

Lakuntzako festetan gauez ez da ezer egonen, ezta danborrada ere

Egitaraua

Ilbeltzak 19, asteazkena
18:30 Piperroopil txapelketarako opilak udaletxean utzi.
19:00 Etxajua, ondoren musika eskolako txaranga eta txokolate jana gurasoen eskutik.
19:15 Piperropil txapelketa.
20:00 Auzatea.
20:30 Zezensuzkoa.

Ilbeltzak 20, osteguna
10:30 Ermitara erromeria.
11:15 Auzatea ermitan, Lakuntzako Pertza eta udalaren eskutik.
12:30 Meza, ondoren auzatea plazan, Lakuntzako Pertza eta udalaren eskutik.
17:30 Txikien danborrada, plazan.
18:00 Elai Alai dantza taldea.
18:30 Alkate dantza.
19:00-21:00 Xaiborrekin dantzaldia.
19:30 Buruhandiak.
20:00 Auzatea.
20:30 Zezensuzkoa.

Ilbeltzak 21, ostirala
11:30-13-15 Puzgarriak.
13:00 Auzatea.
15:30-17:45 Puzgarriak.
18:15 Dantza modernoa.
19:00-21:30 Oihan Vegarekin dantzaldia.
20:00 Auzatea.
21:30 Zezensuzkoa.

Ilbeltzak 22, larunbata
12:00 Erraldoiak.
13:00 Auzatea, Sakanako Trikitilariak taldeak alaituta.
18:30-21:30 Trikidantz taldearekin dantzaldia.
19:30 Buruhandiak.
20:00 Auzatea.
21:30 Zezensuzkoa.

Ilbeltzak 23, igandea
13:00 Aizkolariak, plazan.

Alfredo Alvaro Igoa SAKANA

Pandemia iritsi zen urtean, 2020an, Sakanako biztanleria handitu zen. Urtea hasi baino dozena bat sakandar gehiagorekin itxi genuen; 13 gizonezko gehiago eta emakumezko bat gutxiago. Igoera 0,06 puntukoa da, baina bigarren urtez jarraian ibarreko biztanleria hazi egin da. Izan ere, 2019an 72 biztanle irabazi zituen ibarrak. Azken bi urteetako 84 pertsonen populazio hazkundeak, ordea, ez du inolaz ere konpentsatzen finantza krisiaren eraginez izandako galera: Sakanak 2014 eta 2017 urteen artean 624 biztanle galdu zituen.

Generoari erreparatuta, sakandarren %51,55 gizonezkoak dira (10.445), eta gainontzeko %48,48 emakumezkoak (9.828). Bien arteko aldea %2,32 hazi da, 2019an 603 gizonezko gehiago izatetik 2020ko hasieran 617 izatera pasa zen.

Udalerrika

Sakanak dituen 15 udalerrietatik seitan igo zen biztanleria. Portzentajeari erreparatuta, bi dira populazio igoera nabarmena dutenak: Iturmendi (%4,87, 20 gehiago; 12 gizonezko eta 8 emakumezko) eta Irurtzun (%2,18, 49 gehiago; 26 gizonezko eta 23 emakumezko). Aurrenak hiru urte kateatu ditu populazioa irabazten. Atzenak, berriz, 2012an lortu zuen populazio errekorretik (2.302 biztanle) oso gertu gelditu da. Gainontzeko lau udalerrietan biztanleria hazkunde oso txikia izan dute: Ziordia (%0,57, 2 gehiago; 4 gizonezko eta 2 emakumezko gutxiago), Urdiain (%0,45, 3 gehiago; 4 gizonezko eta emakumezko bat gutxiago), Arakil (%0,42, 4 gehiago, guztiak emakumezkoak) eta Arbizu (%0,36, 4 gehiago; bina emakumezko eta gizonezko).

Gainontzeko bederatzi udalerriek biztanleak galdu dituzte. Galera nabarmenena Arruazun izan da (%5,66, 6 gutxiago; 4 emakumezko eta 2 gizonezko). Puntu pasako galera hiru herrik izan dute: Bakaiku (%1,94, 7 gutxiago; 5 gizonezko eta 2 emakumezko), Ergoiena (%1,08, 4 gutxiago; bina emakumezko eta gizonezko) eta Uharte Arakil (%1,01, 8 gutxiago; 6 gizonezko eta 2 emakumezko). Bakaikuk eta Uharte Arakilek bi urte daramate herritarrak galtzen, Ergoienak lau.

Gainontzeko udalerrietan populazio jaitsiera txikiagoa izan



Dozena bat sakandar gehiago

Ibarrean 20.273 sakandar bizi ginen 2021eko ilbeltzaren 1ean, 12 biztanle gehiago. 10.445 biztanle gizonezkoak ziren eta 9.828, berriz, emakumezkoak. Urte batean bien arteko aldea handitu da, 14 gizonezkorekin. Kilometro karratuko 66,33 sakandar bizi gara

da: Irañeta (%0,59, 1 gutxiago, emakumezkoa), Lakuntza (%0,55, 7 gutxiago, gizonezkoak), Olatzagutia (%0,34, 5 gutxiago; 6 emakumezko eta gizonezko bat gehiago), Etxarri Aranatz (%0,32, 8 gutxiago; launa emakumezko eta gizonezko) eta Altsasu (%0,32, 24 gutxiago; 14 emakumezko eta 10 gizonezko).

Irañetak hiru urte daramatza beherako joerarekin, Lakuntzak bi. Etxarri Aranatzek 2018an lortu zuen biztanleria errekorrera (2.503) ez da hurbiltzen. Olatzagutia, berriz, urte hartan jaitsi zen 1.500 biztanleko langatik eta orduz geroztik ez da bueltatu.

Biztanleria banaketa eta dentsitatea

Ibarreko biztanleriaren %36,7 Altsasun bizi da. Hari Etxarri Aranatz (%12,28) eta Irurtzun (%11,33) gehituz gero, hiru herrietan sakandarren %60,31 bizi da. Ibarrean mila biztanletik gora duten hiru herri daude: Olatzagutia (%7,33), Lakuntza (%6,25) eta Arbizu (%5,49). Hiru horiek aurreko hiruei batuz gero, Sakanako sei herri populatuenetan biztanleriaren %79,38 bizi da, bostetik lau. Gainontzeko sakandarren %20,62 bederatzi herritan bizi dira: Arakil (%4,76), Uharte Arakil (%3,85), Urdiain (%3,28), Iturmendi (%2,13), Ergoiena (%1,81), Bakaiku (%1,74), Ziordia (%1,74), Irañeta (%0,83) eta Arruazu (%0,49).

Hori bai, udalerri guztien azalera ez da berdina, eta lur azalera txikia eta populazio handia duten udalerrietan dago biztanleria dentsitate handiena. Irurtzunek 651,9 biztanle ditu kilometro karratuko. Atzetik, urrun, ditu Altsasu 277,6 eta Lakuntza 114,93. 75 biztanle km karratuko baino gehiago hiru herrik dute: Arbizu 77,81; Olatzagutia 75,7 eta Etxarri Aranatz 75,38. 20 eta 45 artean daude sei udalerri: Urdiain 44,03; Iturmendi 43,5; Bakaiku 30,17; Ziordia 24,46; Uharte Arakil 20,58 eta Irañeta 20,01. Dentsitate txikiena duten hiru udalerriak Arakil 18,45; Arruazu 17,44 eta Ergoiena 8,75 dira.

Hamar urteko aldea

2021 eta 2012 urteetako biztanleria datuak parean jarrita, hamar urte horietan Sakanak 495 biztanle galdu ditu, %2,38ko jaitsiera. Generoari erreparatuta, joan den urte hasieran 2012an baino 268 (%2,5) gizonezko eta 227 emakumezko (%2,25) gutxiago zeuden. Aipatu hamar urte horietan zazpi udalerritan igo zen biztanleria. Portzentajeei erreparatuta hamar urtetan populazioa gehien handitu den herria Iturmendi da, %10,51, tarte horretan 41 biztanle irabazi ditu. Atzetik ditu Bakaiku (%6,01; 20), Arbizu (%1,83; 20), Arakil (%1,47; 14), Lakuntza (%1,28; 16), Irañeta (%1,2; 2) eta Etxarri Aranatz (%0,02, 2).

Hamar urteko aldeari erreparatuta, biztanle gehien galdu duen herria Arruazu da, %12,28, 14 arbazuar gutxiago daude. Portzentajean, populazio jaitsiera handia izan dute ere Ziordiak (%10,66; 42), Olatzagutiak (%10,65; 177) eta Ergoienak (%9,63; 39). Jaitsiera txikiagoa izan da gainontzeko lau herrietan: Uharte Arakil (%5,56; 46), Urdiain (%5,14; 36), Altsasu (%3,25; 250) eta Irurtzun (%0,26; 6).

Bi hamarkadako aldea

Biztanleriaren garapenaren ikuspegia hogei urtetara zabalduz gero, 2002 eta 2021 urteen artean Sakanak 596 biztanle gehiago ditu, %3,03ko hazkundea. Generoari dagokionez, joan den urte hasieran 2002an baino 247 gizonezko (%2,42) eta 349 emakumezko (%3,68) gehiago daude. Bi hamarkada horietan hamar udalerritan igo da populazioa. Igoera handiena ia laurdena hazi den Lakuntzan izan da (%24,93; 253). Nabarmentzekoa dira ere Arbizuko (%20,32; 188) eta Iturmendiko (%14,02; 53) biztanleria hazkundeak. %5etik gorako biztanle igoera bi udalerrik izan dute: Arakil (%9,52; 84) eta Urdiain (%5,9; 37). Gainontzekoen populazio hazkundea apalagoa izan da; Irañeta (%4,35; 7), Etxarri Aranatz (%3,97; 95), Irurtzun (%2,32; 52), Altsasu (%2,2; 160) eta Bakaiku (%1,15; 4).

2002 eta 2021 urteen artean biztanleak galdu dituzten udalerriak bost izan dira. Jaitsiera nabarmenenak Ergoienan (%18,85; 85) eta Olatzagutian (%13,21 226) izan dira. Ziordian (%3,3; 12), Arruazun (%2,91; 3) eta Uharte Arakilen (%1,39; 11) biztanle jaitsiera txikiagoa izan da.

Nafarroa

Herrialdeak populazioaren hazkundearen joerarekin segitu zuen eta joan den urte hasieran 340 (%0,05) herritar gehiago zenbatu zituzten: 661.537. Nafarroan 6.607 (%1,97) emakumezko gehiago zeuden gizonezkoak baino. Zehazki, 334.072 (%50,49) emakumezko. Gizonezkoak, berriz, 327.465 (%49,50) ziren. Nafar guztien artean sakandarrak %3,06 ginen 2021eko ilbeltzaren 1ean, aurreko urtean bezala; Hala ere, 2017tik 2020rako biztanleriaren bilakaeragatik Sakanak %1eko pisua galdu du Nafarroan.

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / kultura@guaixe.eus

OSTIRALA 14

ALTSASU **Gazte agenda: Billar txapelketa.**
18:00etatik aurrera, Intxostiapuntan.

LARUNBATA 15

ALTSASU ***Lau urte eta gero pentsionistak aurrera* manifestazioa.** Euskal Herriko pentsiondunen mugimenuak deituta.
12:00etan, Foru plazan.

ALTSASU **Mus txapelketa.** AGAk antolatuta.
16:30etik aurrera, gaztetxean.

ALTSASU **Gazte agenda: Pintxo txapelketa.**
18:00etatik aurrera, Intxostiapuntan.

LAKUNTZA **Anita Parker taldearen kontzertua.**
19:00etan, kultur etxean.

ALTSASU **Trasteando taldearen kontzertua.** Sarrerak agortuta.
19:30ean, Iortia kultur gunean.

OLAZTI **La Topadora taldearen kontzertu akustikoan.**
19:30ean, Barandi tabernan.

IGANDEA 16

ETXARRI ARANATZ ***Zama doinuz arindu VII*: Bulego, Onki Xin, Zelanda, McOnak, Amak, Leihotikan, Unidad Alavesa eta Modus Operandi taldeen emanaldia. Bakarrizketak: Joxe Aldasoro, Nerea Arriola, Mirari Martiarena eta Antton Telleria.**
17:00etan eta 19:30ean, kultur etxean.

ALTSASU ***Euskal preso eta iheslariak etxera* elkarretaratzea.**
20:00etan, plazan.

ASTELEHENA 17

ALTSASU **Pentsio duinen aldeko elkarretaratzea.**
12:00etan, udaletxearen parean.

ASTEAZKENA 19

ALTSASU **Iñigo Aritzaren 50. urteurrena. Paula Kasaresen *Euskaraz badakite bainao nola motibatu euskaraz egin dezaten?* Hitzaldia.**
18:30ean, Iortia kultur gunean.

EGURALDIA ASTEBURUAN

Ostirala, 14
Min. -1º Max. 10º

Larunbata, 15
Min. -2º Max. 9º

Igandea, 16
Min. -2º Max. 9º

Astelehena, 17
Min. -1º Max. 9º

ZINEMA

ALTSASU

IORTIA KULTUR GUNEKO ARETO NAGUSIAN

***Mamá o papá* gaurkotasunezko filmaren emanaldia**
Ostirala 14: 19:00
Igandea 16: 19:30

***El amor en su lugar* gaurkotasunezko filmaren emanaldia**
Osteguna 20: 19:00

IORTIA KULTUR GUNEKO ARETO TXIKIAN

***100 días con la Tata* zineforum filmaren emanaldia**
Igandea 16: 19:30

***La historia de mi mujer* zineforum filmaren emanaldia**
Osteguna 20: 19:00

ARGAZKILARIAXXXX

ALTSASU ***Mar Menor bizirik. Zero isurketa.* Boria Raquel Meyers eta Arkaitz Saiz.**
Urtarrilaren 15era. 17:00etatik 20:00etara. Iortia kultur guneko erakusketa gelan.

ESKELA

ESKELA



IRAGARKI SAILKATUAK

LANA/NEGOZIOA

LAN ESKAINTZA

Altsasuko Amaia kafetegian zerbitzaria behar da: Asteburuetan eta egun berezietan lan egiteko. Deitu 667 536 395 tfnora.

Lakuntzako Anfas egoitzan lan egiteko pertsona bat behar da: kontratua ekainera arte izango da eta 28,5 orduko lanaldia. Heziketa bereziko magisteritza, entzumena eta mintzaira magisteritza eta Logopiedian graduatua edo pedagogia terapeutiko gradua. Euskaraz jakitea derrigorrezkoa da. Interesa baduzu, bidali curriculum-a *rzsakana@anfasnavarra.org* helbidera.

HIGIEZINAK

SALGAI

Pisua bajerarekin salgai: Etxarri Aranazko Santakitz kalean. Interesatuek deitu 669 156 117 tfnora.

LEHIAKETA

Asun Casasola VII. Ipuin Lehiaketa: Aurtengo gaia "Iristerakoan jakinarazi" izango da. Lau kategoria izango ditu lehiaketak: 10-16 urte arteko gazteendako euskara eta gaztelerazko kategoriak eta 16 urtetik gorakoentzat ere euskara eta gaztelerazko kategorial. Lanak bidaltzeko epea otsailaren 10ean amaitzen da. Sariak 300 eta 100 euro bitartean egongo dira. Oinarriak *https://asuncasasolaipuinak.eus/oinarriak-bases* estekan kontsultatu daitezke edo *asuscasasolaipuina@gmail.com* helbidera idatzi.

Elhuyar Zientzia Azokaren 10.Edizioa: izena emateko epea zabalik otsailaren 28a arte, Elhuyar Zientzia Azokaren web orrian. 12-18 urte bitarteko gazteei eta beren irakasleei zientzia eta teknologia proiektuak garatzeko gonbita luzatzen zaie, hala, beren proiektuen barnean, gazteek zientzia eta teknologiako benetako profesionalak ezagutuko dituzte, haiekin abenturak eta bizipenak partekatuko dituzte eta beren lanean bidelagun izango dituzte. 301 ikertzailek eman dute izena proiektuan parte hartzeko, eta gazte taldeek haien laguntza jasoko dute beren zientzia proiektuak garatzeko. Ekainaren lehen asteburuan ospatuko da Elhuyar Zientzia Azokaren ekitaldi nagusia Bilboko Areatzako kaian eta gazteek eginiko lanak aurrez aurre ezagutzeko aukera izango da.

OHARRAK

Odol emateak Etxarri Aranatzen: Ilbeltzaren 19an, 17:00etatik 20:30ra, *www.adona.es/eu* webgunean informazio gehiago.

Aralarko santutegi ondoan dagoen eraikina (Lakuntzetxe) zaharberritzeko proiektuan lagundu nahi duenak: ES11 3008 0045 9840 7184 5517 kontu korrontean egin dezake ekarpena. Mezenazgo Legean jasotako proiektua denez, dirua ematen dutenei errenta aitorpena egitean zati bat bueltatuko diote.

Nafarroako Filmotekaren Gure oroimenaren fotogramak ekimena: Nafarroako Ondare Filmografikoa bildu, digitalizatu eta zaintzeko asmoarekin, Filmotekak herritarrei deia egiten die etxean izan dezakeen materiala dokumentatu nahi duelako. Material orok balioa duela jakinarazi nahi dute (kamerak, proiektoreak, aldizkariak, gidoiak, bobinak, VHS, Betacam, DVDak, filmak...) Bi aukera daude materiala uzteko; Gordailua (Epe baterako uzten da, material digitalizatuaren kopia bat ematen zaio gordailugileari, eta nahi duenean berreskura dezake bere materiala artxibotik) eta Dohaintza (Materiala ezin da artxibotik jaso, Artxiboari ematen zaizkio eskubideak, material digitalizatuaren kopia bat ematen zaio dohaintza emaileari). Galdetu zure herriko liburutegian, han emango dizute informazio gehiago, beraiek egingo dute bitartekari lana eta. Edo deitu Nafarroako Filmotekako Artxibora 848 424 750 (*filmoteca.archivo@navarra.es*) edo Liburutegi Zerbitzra 848 427 784 (*cflamarg@navarra.es*).

iragarki@guaixe.eus

www.iragarkilaburrak.eus

JAIOTZAK

- **Malik Alejandro De la Vega Hamarass eta Kenza Michelle De la Vega Hamarass,** abenduaren 16an Ziordian
- **Irati Imaz Lizarraga,** abenduaren 27an Dorraon
- **Izaro Gorriz Loban,** abenduaren 28an Etxarri Aranatzen
- **Hodei Beaumont Asio,** abenduaren 30ean Hiriberrin
- **Aiala Urteaga Muñoz,** ilbeltzaren 1ean Altsasun
- **Izei Goñi Jauregui,** ilbeltzaren 4an Etxeberrin
- **Alan Morillas Villar,** ilbeltzaren 7an Irurtzunen
- **Victoria Gabriela Tabi Camuendo,** ilbeltzaren 7an Irurtzunen
- **Xuban Lizarraga Berastegi,** ilbeltzaren 7an Lakuntzan

HERIOTZAK

- **Andrés Peral Cortés,** abenduaren 21ean Altsasun
- **Pablo Valtierra Bujedo,** abenduaren 24an Altsasun
- **Consuelo Galarza Ostiza,** abenduaren 24an Urdiainen
- **Maria Rosa Unzilla Lakuntza,** ilbeltzaren 1ean Arbizun
- **Isabel Murga Otxoa,** ilbeltzaren 2an Altsasun
- **Eugenio Aierdi Aierdi,** ilbeltzaren 3an Olaztin
- **Consuelo Muñoz Maestu,** ilbeltzaren 4an Altsasun
- **Antonio Goikoetxea Mendiluze,** ilbeltzaren 6an Urdiainen
- **Maria Jesus Irañeta Sasturain,** ilbeltzaren 8an Ihabarren

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.

IZARRA
HEMEN, ZURE ONDOAN
AQUÍ, A TU LADO

«Bizitzan badira une batzuk zeinetan norbait ondoan behar dugun»

BEILATOKIAK

ALTSASU
Santa Cruz, 6

ETXARRI ARANATZ
Nagusia, 2

948 05 90 90 · www.izarratanatorio.com

IRACHE
tanatorioak
Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

"Betidanik"

948 19 70 70
@GrupoIrache
GrupoIrache
www.tanatoriosirache.es

1. AUTONOMIKOA GIZON.

2. FASEA. 2. JARDUNALDIK EMAITZA

Beti Casedano - Lagun Artea	1-2

SAILKAPENA

1. MAILA AUTONOMIKOKO 2. MULTZOA

1	Burladés	29
10	Lagun Artea	16

HURRENGO JARDUNALDIA

IGANDEAN

15:45 Lagun Artea - Doneztebe *(Zelai Berri)*

Lagun Arteak Doneztebe aurkari

Bigarren fasean, kategoriari eustea du helburu talde lakuntzarrak.

1. AUTONOMIKOA EMAK.

15. JARDUNALDIKO EMAITZA

Mutilbera B- Altsasu	2-0

SAILKAPENA

1. AUTONOMIKOKO EMAK. 2. MULTZOA

1	Mulier	42
10	Altsasu	0

HURRENGO JARDUNALDIA

IGANDEAN

17:00 Oberena - Altsasu *(Oberena)*

Altsasu vs Oberena

Oberenaren kontra lehen garaipena lortzeko aukera dute Altsasuko neskek.

FUTBOL PREFERENTEA

16. JARDUNALDIKO EMAITZA

Lezkairu - Etxarri Aranatz	2-3

SAILKAPENA

PREFERENTEKO 1. MULTZOA

1	Injerto	36
13	Etxarri Aranatz	16

HURRENGO JARDUNALDIA

LARUNBATEAN

15:45 Etxarri - Ondalan *(San Donato)*

Etxarri, bide onean jarraitzera

Lezkairuren kontra garaipen garrantzitsua lortuta, bide horretan segi nahi du Etxarrik.

FUTBOL ERREGIONALA

14. JARDUNALDIKO EMAITZA

San Fermin ikastola - Altsasu	0-11

SAILKAPENA

ERREGIONAL MAILAKO 3. MULTZOA

1	Aurrera	35
3	Altsasu	28

HURRENGO JARDUNALDIA

IGANDEAN

16:00 Altsasu - Baztan *(Dantzaleku)*

Altsasu, festa jarraitzera

Baztan taldea hartuko du Altsasuk, garaipen festarekin jarraitzeko asmoz.

Txapelketako txapeldunak, bigarrenak eta hirugarrenak, Asier Galarza tartean (lehenengoa ezkerretik). UTZITAKOA

Irurtzungo txapelak Madrilera eta Segoviara

FRONTENISA Irurtzun-Arakilgo VII. Frontenis Txapelketan Dani eta Miguel gailendu ziren 64 bikoteen artean, azken edizioko txapeldunei gailendu eta gero. Asier Galarza irurtzundarra eta Alvaro Fernandez hirugarren sailkatu ziren

Maider Betelu Ganboa IRURTZUN

Ilbeltzaren 8an jokatu zen Irurtzun-Arakilgo VII. Frontenis Txapelketa. 64 bikote zeuden izena emanda eta Estatu mailan partaidetza gehien izan duen torneoa izan zen, torneorik garrantzitsuenetakoa. Goi mailako txapelketa izan zen, Estatu mailako frontenis jokalaririk onenek jokatu baitzuten, tartean munduko txapeldun izandako Victor Molina eta Joan Domingo valentziarrak. Txapelketa honen antolatzailea Asier Galarza Iriarte irurtzundarra da, eta berak ere txapelketan parte hartu zuen, Cuencako Alvaro Fernandezekin bikotea osatuta.

Goizean kanporaketak jokatu ziren Irurtzun, Etxarren, Aldatz, Etxarri Aranatz, Arbizu, Lakuntza, Uharte Arakil, Latasa eta Lekunberriko frontoietan. Partida estuak izan ziren, zaletasuna sortzen dutenak. Bikote bakoitzak gutxienez hiru partida jokatu behar izan zituen, eta onenek egin zuten aurrera.

Ikusle asko

Giro ederra egon zen txapelketan, azken txanpan batez ere, arratsaldetik aurrera Irurtzunen jokatu ziren partidetan. "Nik uste dut ez dudala frontenis txapelketa batean Irurtzungoan egon zen bezainbesteko ikuslerik. Frontoiko aforoaren %75 bete genezakeen, eta kopuru horretara iristear egon ginen. Horrenbeste ikusle ikusteak gustagarria zen, benetan" azaldu du Asier Galarza antolatzaileak.

Txapelketari dagokienez, partidak ikusgarriak izan zirela nabarmendu du Galarzak, maila "sekulakoa" izan zela. Bestalde, partaideen artean hainbat bikote sakandar aritu zirela nabarmendu du Galarzak, eta horrek "poz handia" eman ziola. Bera, Galarza, izan zen finalerdietara sailkatu zen sakandar bakarra, Alvarorekin bikotea osatuta, final laurdenetan meritu handiz Victor eta Joan valentziarrei, munduko txapeldun izandakoei irabazi eta gero.

"PARTIDEN MAILA, IKUSLE KOPURUA ETA GIROA NABARMENDUKO NITUZKE"
ASIER GALARZA

Galarzak eta Alvarok finalerdietan Adrian Ruiz (Bilbo) eta Jose Angel Claveria (Pitillas) izan zituzten aurkari, aurreko edizioko txapeldunak, hain zuzen ere. Lehia estuan, Adrian eta Jose Angel gailendu zitzaizkien, 8 eta 4, eta txapelketatik kanpo geratu ziren. Beste finalerdia Danik (Madril) eta Miguelek (Segovia) jokatu zuten, Eloyren (Salamanca) eta Jonyren (Burgos) kontra. 12 eta 4 irabazi zuten Danik eta Miguelek.

Final handia Irurtzungo frontoian sekulako giroa zela jokatu zen. Azkenean txapelak Madril eta Segovia aldera joan ziren, Danik eta Miguelek 10 eta 1 hartu baitzituzten mendean Adrian eta Jose Angel. Hirugarren eta laugarren postua erabakitzeko finalean, Asierrek eta Alvarok 20 eta 5 irabazi zieten Eloyri eta Joniri, eta hirugarren izan ziren. Eloy eta Jony laugarren izan ziren, Victor eta Joan valentziarrak bosgarren, Cristian (Kanariar Irlak) eta Julio (Guadalajara) seigarren, Xabi eta Erik (Aduna) zazpigarren eta Asier eta Mario (Logroño) zortzigarren.

Sariak

Sari ederrak banatu zituen antolakuntzak. Txapeldunek 800 euro eta txapelak jaso zituzten, bigarrenek 400 euro eta hirugarrenek 100 euro. Horretaz gain, parte hartzaile guztiek kamiseta eta Lacturaleren produktu lotea jaso zuten opari. Frontenis jokalari asko kanpotarrak izaki, Irurtzungo hotel, jatetxe eta tabernetan mugimendua nabaritu zen. Beste behin, arrakastatsua izan zen Irurtzun-Arakilgo Txapelketa eta Asier Galarza antolatzaileak kontentu egoteko arrazoi asko ditu, guztia primeran atera zelako, eta txapelketan hirugarren sailkatu zelako.

Balorazio ona

Balorazio ezin hobea egin du Galarzak. "Oso pozik nago guztia ongi atera zelako, partaideak eta ikusleak ere oso gustura geratu zirelako eta jasotako mezuengatik. Askok esan didate guztia ongi antolatuta zegoela, hurrengo urtean errepikatu nahi dutela eta, mesedez, txapelketa antolatzera animatzeko, gustagarria delako bertan parte hartzera" aitortu du Galarzak. Kasu egin beharko die.

Amantes del Fronton

Youtube plataformako Amantes del fronton izeneko kanalean Irurtzun-Arakil Frontenis Txapelketako finala, sari ematea eta Galarza-Alvaro eta Victor-Joan bikoteen arteko final laurdena jarri dituzte ikusgai. "Lauzpabost egun hauetan bideoek erreprodukzio asko dituztela esan didate plataformakoek, udako partidek baino gehiago. Interesa dutenek hor dute ikusgai" azaldu du Galarzak.

"HURRENGO URTEAN ERREPIKATU NAHI DUTELA ESAN DIDATE PARTAIDE ASKOK"
ASIER GALARZA

Binakakoa: Joseba Ezkurdiak dio ez daudela hilda

PILOTA Ezkurdiak eta Tolosak Altuna eta Martija dituzte aurkari larunbatean Labriten, final kutsua duen lehian

Maider Betelu Ganboa SAKANA

Binakako Txapelketako bederatzigarren jardunaldia ezinbestekoa da Joseba Ezkurdiarendako eta Xabier Tolosarendako. Sailkapenean azkenak dira, puntu bakarrarekin, eta larunbatean, Labriten, sailkapenean hirugarrenak eta behetik gorako bidean dauden Jokin Altuna eta Julen Martija izango dituzte aurkari. "Ez gaude gustuko genukeen tokian, baina ez gaude hilik. Altunaren eta Martijaren kontrako partida final bat da guretako. Ez badugu irabazten, play-offetara sailkatzea oso zaila izango dugu. Oldarkor jokatu beharko dugu, bestela ez dugu ezer lortuko" azaldu du Ezkurdiak.

Ez dute lan samurrik, Altunak eta Martijak, Etxeberriko atzelariak bereziki, behetik gora egin dutelako eta azkeneko partidan Irribarriaren eta Rezustaren kontra ikusgarri aritu zirelako. Baina Ezkurdiak eta Tolosak ere itxura oso ona eman zuten: Elezkano eta Zabaleta ederki estutu zituzten, nahiz eta azkenean liderrek partida irabazi. Hortaz, lehia ikusgarria espero da Iruñean.

Ezkurdia eta Martija. ARTXIBOA

Elezkano eta Zabaletak larunbatean jokatuko dute, Zumaian, Irribarriaren eta Rezustaren kontra. Lidergoari eutsi nahi diote, tentsio handiko partida izango denean.

Bestalde, gaur, ostirala, Lasok eta Imazek Urrutikoetxearen eta Arangurenen kontra jokatuko dute Buñuelen. Igandean, Gasteizko Ogeta pilotalekuan Jakak eta Mariezkurrenak Peña eta Albisu izango dituzte arerio. Bukatzeko, Promozioan Bakaikoa-Elizegik Zubizarreta-Eskirozen kontra jokatuko dute larunbatean Labriten.

Ion Cerviño, 23 urtez azpiko selekziora

ARETOKO FUTBOLA Espainiako 23 urtez azpiko areto futbol selekzioak Xotako jokalari irurtzundarra deitu du Europako Txapelketak prestatzeko asteburuan egingo dituen saioetara. Selekzio absolutuaren kontrako partida dago tartean

Ion Cerviño Pueyo jokalari irurtzundarrak Espainiako 23 urtez azpiko areto futbol selekzioko Albert Canillas hautatzailearen deia jaso du, aipatu selekzioak gaur, ostirala, eta bihar, larunbata, egingo dituen entrenamendu saio berezietan parte hartzeko. Entrenamendu saio hauek Herbehereetan jokatuko diren Europako 2022 Areto Futbol Txapelketak prestatzeko izango dira, eta tartean, Espainiako Areto Futbol selekzio nagusiaren kontrako lagunarteko partida jokatuko du 23 urtez azpiko selekzioak. Beraz, primerako aukera da Ion Cerviñorendako.

Ion Cerviño Imanol Arregiren aginduetara entrenatzen, asteazkenean. XOTA

Eskertuta

"Oso pozik nago 23 urtez azpiko Espainiako selekziorako hautatua izan naizelako. Ez nuen inondik inora espero, eta ilusioz gainezka nago, lan ona egiteko gogotsu. Hautatzaileak nigan izan duen konfiantza eskertu nahi dut, eta Espainiako selekzio absolutuaren kontrako partidan lan ona egin nahiko nuke. Lehia bikaina izango da" adierazi du 18 urteko irurtzundarrak.

Ion Cerviño Lehen Mailan debutatu zuen jokalari gazteena da, 15 urte zituela debutatu baitzuen, Imanol Arregiren esanetara. Atzelari aparta, lau urte zituenetik trebatu da Xotan. Espainiako 17 urtez azpiko eta 18 urtez azpiko selekzioetan aritu izan da eta, orain, 23 urtez azpikora eman du saltoa.

Txapeldun handiak Etxarrin

PALA Gure pilota Sakanako XVII. Nesken Pala Torneoko final ikusgarrietan, gaztetxoak mailan Glaria-Nuin, Arane-Malen, Lexuri-Izadi eta Uxue-Maialen izan ziren txapeldunak. Lehen mailan Naroa Otxoa txapelik gabe geratu zen– Berakoetxea eta Gorostiaga gailendu ziren– eta eliteen mailan Irati Igoak galdu egin zuen Murilloren eta Erasunen kontra.

UTZITAKOA

Espezialista onenak Altsasun

ATLETISMOA Igandean Dantzaleku korrikalarien festa bilakatuko da. 9:45ean Altsasu kros herrikoia abiatuko da, 10:15etik aurrera Nafarroako Kirol Jokoen erreleboak, eta 13:00etatik aurrera Altsasuko Krosa, Nafarroako Banakako Txapelketa izango dena

Zirkuituak Basoitxi, Dameroa, Usolarrain eta Dantzaleku batzen ditu.

Maider Betelu Ganboa ALTSASU

Dantzaleku Sakana Atletismo Klubak prest dauka igandean jokatuko den 36. Altsasuko Kroseko ibilbidea, guztiz garbituta eta markatuta. Azken astean makina bat korrikalari hurbildu dira Altsasuko ibilbide gogor bezain ederra probatzera. Esaterako, larunbatean Iruñetik korrikalari kuadrilla ederra bertaratu zen, eguraldia lagun, ibilbidea osatzera. Larunbatetik asteartera eroritako euriak zirkuitua guztiz lokaztu zuen, baina asteazkenetik ateri dago eta iganderako egun hotz baina eguzkitsua espero denez, zirkuitua dezente lehortuko dela espero da, eta atletismoaren festa ederra bilakatuko da Dantzaleku.

Lasterketak goiz osoan zehar

36. Altsasuko Krosa Dantzaleku Sakana Atletismo Klubak antolatu du, Nafarroako Atletismo Federazioaren, Nafarroako Gobernuaren, Altsasuko Udalaren eta hainbat babesleren laguntzarekin. Proba ezberdinak jokatuko dira. Goiztiarrena Altsasuko Kros Herrikoia izango da, 9:45ean Dantzalekuko pistetatik abiatuko dena (5.960 m, zirkuituari hiru itzuli). 10:15etik aurrera Nafarroako Kirol Jokoen errelebo probak jokatuko dira, Usolarrainen kategoria txikienendako prestatutako zirkuituan. 18 urtez azpikoak, 16 urtez azpikoak, 14 urtez azpikoak eta 12 eta 10 urtez azpikoak lehiatuko dira hurrenez hurre, lauko erreleboetan.

Bukatzeko, 13:00ak inguruan Altsasuko Krosa jokatuko da, atleta federatuen proba, aldi berean Nafarroako Banakako Kros Luzeko Txapelketa izango dena. 20 urtez azpiko emakumeek 5.960 m osatuko dituzte, 20 urtez azpiko gizonek 7.800 m eta lasterketa absolutuak 9.800 m). Lehendabiziko sailkatu nafarrek Espainiako Banakako Kros Txapelketan parte hartzeko txartela lortuko dute eta, atleta nafar onenak hurbilduko dira Dantzalekura: Javier Nagore, Atharratze Rota, Miguel Aristu, Abdelkader Louaar, Ayrton Azkue, Vanesa Pacha, Ainara Alcuaz… Tartean izanen dira ere Altsasuko San Silvestreko irabazleak, Israel Arbizu etxarriarra (Hiru Herri) eta Izaskun Beunza olaztiarra (Beste Iruña). Azken hau igandean Valentziako 10 Kilo-

"Altsasukoa sekulako ikuskizuna izanen da"

ISRAEL ARBIZU ALBERTO ALTSASUKO SAN SILVESTREA IRABAZI ZUEN KORRIKALARIA

Israel Arbizu Albertok (29 urte, Etxarri Aranatz) 2021 urtea Altsasuko San Silvestreko txapela janzten despeditu zuen, eta urte berria igandean jokatuko duen Altsasuko krosean lan ona eginez hasi nahiko luke.

Noiztik egiten duzu korrika?

Txikitatik. Dantzaleku Sakanako taldean aritzen nintzen, baina jendea futbolera edo pilotara joaten hasi zen eta bakarrik geratu nintzenez, Burlatako Hiru Herri klubera joan nintzen, ordutik nire taldea denera.

Hiru Herrin sakandar bakarra zara?

Ez, aurten Ihabarko Mikel Astiz triatleta hasi da taldean.

Igandean Elgoibarko Nazioarteko Krosean proba bukatu zuen sakandar bakarra izan zen Mikel.

Bai. Bere lehenengo krosa izan zen, eta esan nion ezin izan zuela mustutze hoberik izan.

Zuek Hiru Herrin, beste hainbat sakandar Beste Iruñan–Iraitz eta Adur Senar, Asier eta Leire Estarriaga, Izaskun Beunza…– eta Dantzaleku Sakana Klubean makina bat sakandar. Pike sanoa al duzue?

Bai, pike sanoa dugu eta harreman ona. Sarritan entrenatzen dugu elkarrekin, eta oso giro ona dugu denok.

Badirudi azken urtean atletismoan zentratuago zaudela.

Atletismoa kirol gogorra da. Asko zaindu behar duzu urte guztian barna, entrenatu, asteburutan ez atera... Gurea epe luzeko kirola da. Agian hiru urte zaude entrenatzen, eta bat batean urte horretan zure markak pila bat hobetzen dituzu. Hori gertatzen da urte batzuetan konstante izan zarelako. Nik ez dut konstantzia hori orain arte izan; iaz, 2021ean osatu nuen nire denboraldi oso bakarra, hau da, neguan krosa egin, udaberrian pista, gero errepidea… Niri konfinamendua ongi etorri zitzaidan, egia esan (kar, kar…).

Ordutik lortu dituzu emaitza onenak. 2020an Nafarroako 5 Kilometroko Txapelketa herrikoian hirugarren izan zinen, eta 2021ean Nafarroako Milian txapeldunordea izan zinen, Altsasuko Kros Luzean zortzigarren, Lizarrako Kros Laburrean zazpigarren eta denboraldia borobiltzeko Altsasuko San Silvestrea irabazi zenuen, zure lehen garaipena.

Bai, nire lehendabiziko garaipena Altsasuko San Silvestrean lortu nuen. Ilusioa egin zidan. Pandemiagatik ez zen betiko ibilbidea izan, multzoka atera ginen, ez zen betiko ordua, eta probak xarma galdu zuen, baina hala ere kontentu nago. Osasun egoeragatik ezin izan nuen garaipena parranda batekin ospatu, baina arratsaldean lagunekin ardo batzuk gustura hartu nituen.

Altsasuko San Silvestrea irabaztea espero al zenuen?

Ez. Nik uste dut proba bat irabaztea ez dela sekula espero. Atletismoa, azkenean, zenbakiak dira. Aste bat lehenago 3.000 metroko lasterketa bat egin nuen Donostian, eta marka oso ona egin nuen. "Marka horrekin ez duzu San Silvestrean arazorik izango" esaten zidaten, eta nik erantzuten nien: "marka ona da, baina egun horretan lasterketara joan beharko da eta irabazi".

Igandean Elgoibarko Nazioarteko Krosean aritzeko asmoa zenuen, baina azkenean ez zinen atera.

Parte hartzekoa nintzen, baina COVID-19 gaitzaz kutsatu nintzen eta ezin izan nuen. Sekulako pena. Gaixotasunagatik bi egun nahiko gaizki pasa nituen. Korrika egitera atera nintzen lehen egunean birikak oso azkar betetzen zitzaizkidan. Egun horretan korrika gutxi egin nuen, erritmo oso mantsoan, eta zer pentsa eman zidan, baina hurrengo egunean atera nintzen eta oso ongi ibili nintzen. Ordutik normal entrenatu dut, baina igandean esango dizut nola nagoen, Dantzalekun.

Begirada Altsasuko krosean duzu. Jende asko ibili da azken egunotan ibilbidean entrenatzen. Zu ere?

Larunbat eguerdian joateko asmoa dut. Igandean ibilbidea nola egongo den ikusteko hobeto aurreko egunean joatea.

Altsasuko kroseko proba nagusian 9.800 km dituzue aurretik. Proba gogorra da.

Bai, gogorra da. Lokatza, harriak, sustraiak... ibilbidean denetatik dago. Kros batek ez du asfaltoko lasterketarekin zerikusirik. Hanketan beste indar bat izan behar duzu, bestela oso luzea eta oso gogorra egiten zaizu.

Krosean, pistan edo asfaltoan hobe?

Hiruretan nahiko erregularra naiz; agian, okerren, errepidean. Krosean eta pistan errendimendu gehiago ateratzen dut.

Altsasuko Krosa aldi berean Nafarroako Banakako Kros Luzeko Txapelketa da, eta lehendabiziko postuetan sailkatzen diren korrikalariek ilbeltzaren 30ean Jaenen jokatuko diren Espainiako Txapelketarako txartela lortuko dute.

Altsasukoak sekulako saria du: Espainiako Txapelketara sailkatzea. Nassim Hassaous

metroko Ibercaja lasterketan lan ederra egitetik dator. 35 urtetik gorako beteranoetan laugarren emakumea izan zen eta bere marka pertsonala ondu zuen (36:10). Bere taldekide Adur Senar lakuntzarrak ere oso lan ona egin zuen (34:10).

Bestalde, Izaskun Beunza azaroaren bukaeran Espainiako Master Atletismo Txapelketan aritu zen, Ourensen. 1.500 metrotan urrezko domina lortu zuen olaztiarrak, eta 3.000 metrokoan zilarrezkoa, 2 ehunenekora, Donostian abendu bukaeran hobetu zuen marka.

Ibilbidean aldaketak

Dantzalekukoek joan den urteko zirkuituan aldaketak egin dituzte, zirkuitua luzatuz. 1.920 metroko zirkuitua da prestatu dutena, eta horri Dantzalekuko pistetatik atera eta sartzea diren 200 metroak gehitu behar zaizkio. Dantzalekutik aterata, futbol zelai zeharretik sartu eta Basoitxin eta Dameroan sartzen da ibilbidea, Txanti errekan buelta hartuta, atzera ere futbol zelai zaharrera atera eta gero Usolarrainera sartzen dena, han bueltatxo bat egin eta Txuspo Poyoren zuhaitzeko etxetik pasaz, Dantzalekuko pistetako helmugara iritsiko dena.

Osasun larrialdia dela eta, eskatutako osasun neurriak beteko direla azaldu du antolakuntzak eta igandean Altsasuko Krosa ikustera animatu ditu sakandarrak "zirkuitu ikusgarria prestatu dugulako, korrikalari apartak arituko direlako eta primerako giroa egongo delako".

50. urteurreneko omenaldia

Igandean jokatuko dena Altsasuko 36. Krosa da, eta hain zuzen ere 50 urte beteko dira Dantzalekun lehendabiziko krosa antolatu zenetik. Horregatik, Dantzaleku Sakana Atletismo Klubak urteurren berezia ospatu nahi du. "Duela 50 urte Altsasuko Krosa lehenengoz Dantzalekun antolatu zuen Lagun Onak elkarteko kuadrilla hura izango dugu gogoan, eta omenaldi xume bezain polita egingo diegu. Tartean zegoen azaroaren 15ean zendutako Candi Arnanz. Lasterketak antolatzeaz gain, lasterketa guztietan parte hartzen zuten, eta Espainiako Txapelketetan zenbaitetan hartu zuten parte, Nafarroa ordezkatuz. Candi bera korrikalaria, entrenatzailea, epailea eta lasterketa antolatzailea zen. Altsasuko Kros nagusia bukatzerakoan, Dantzalekun egingo den sari ematean omenduko ditugu, ordu biak laurden gutxi aldera" azaldu du Dantzaleku Sakana Klubeko Peio Bergarak.

Halaber, Lagun Onak elkarteko taldekide horien senitarteko eta lagunei deialdia egin diete, ekitaldira hurbiltzeko.

EGURALDIA LAGUN, GIRO EDERRA ESPERO DA: KORRIKALARI APARTAK ETA ZIRKUITU IKUSGARRIA

DANTZALEKUN LEHEN KROSA ANTOLATU ZELA 50 URTE BETEKO DIRA ETA OMENALDIA EGINGO DU KLUBAK

Proba goiztiarrena Altsasuko Kros Herrikoia izango da, 9:45ean.

Proba nagusia baino lehen Nafar Kirol Jolasen errelebo probak jokatuko dira.

tuterarrak dagoeneko Espainiako Txapelketan aritzeko plaza ziurtatuta du. Ez du Altsasuko Krosean parte hartuko, eta, hortaz, ziurrenik lehenengo sei sailkatuek lortuko dute Espainiako Txapelketetarako tokia, Nafarroako selekzioarekin.

Nortzuk dira faboritoak? Postu horien artean sailkatzeko aukera ikusten duzu?

Niretako, zalantzarik gabe, joan den urtean Altsasuko Kros Herrikoia irabazi zuen Abdelkader Louaar da faborito argia. Eta, gero, betikoak daude: Javier Nagore, nire taldekide Atharratze Rota eta Miguel Aristu, Estanis Ruiz, Iker Diges, Ayrton Azkue... aurten jende oso ona ariko da, eta lehen postu horietan sartzea oso oso zaila izango da. Emakumezkoetan, uste dut Maitane Melero ez dela etorriko, baina nire taldekide Vanesa Pacha ezaguna egongo da, Ainara Alcuaz, oso ongi ari dena...

Eta baita zurekin San Silvestre irabazi zuen Izaskun Beunza olaztiarra ere.

Bai, sakandar dezente egongo gara proba nagusian: Mikel Astiz taldekidea, Dantzalekuko Jabi Gasanz, Eukeni Goikoetxea, Iban Sobredo, Fermin Azkargorta, Aritz Etxeberria, Isidro Asurabarrena, Beste Iruñeko Izaskun Beunza, Eneritz Karasatorre… Talde majoa.

Bertakoek ibilbidea oso ongi ezagutzen duzue eta hori alde izango duzue.

UTZITAKOA

"NAFARROAKO BENETAKO KROS BAKARRA ALTSASUKOA DELA DIOTE IRUINDARREK"

"ALTSASUKO KROSAK SEKULAKO SARIA DU: ESPAINIAKO TXAPELKETARA SAILKATZEA. OSO ZAILA IZANGO DA"

Bai. Ni oso motibatuta nago. Lizarran bezala aterako naiz; ez naiz onenekin joango, eurek beste erritmo bat dutelako. Bigarren taldean geratuko naiz. Ea bateren batek egun txarra duen; nik, aldiz, nire egunik hoberena izan beharko dut. Ea zortea alde dugun eta aurreko postu horietako batean sartzen garen. Oso zaila ikusten dut, egia esan, baina saiatuko naiz. Sentsazioak onak dira. Igandean serie batzuk egin nituen eta oso gustura ibili nintzen, eta asteazkeneko serietan ere.

Espainiako Txapelketarako sailkatzea lortuko bazenu...

Egundokoa litzateke (kar, kar…)

Lanaldi zatituan egiten duzu lan Ramos Electricidad enpresan. Nola moldatzen zara lana eta entrenamenduak uztartzeko?

Ero baten moduan ibiltzen naiz, egia esan. Esaterako, astelehenean zazpietan atera nintzen lanetik, eta zegoen eguraldi petralarekin, frontala hartu eta pentsatu nuen: "baina nora noa ni horrela?" Baina Altsasuko Krosa zela gogoratu, eta atera nintzen.

Fresko baina eguraldi eguzkitsua iragartzen dute iganderako. Altsasuko Krosa are politagoa izango da.

Bai. Sakandar guztiak Dantzalekura gerturatzea animatzen ditut, igandeko krosa sekulako ikuskizuna izango delako. Eguraldi ona, zirkuitu polita, lasterketa jarraitzeko toki ederrak eta sekulako maila egon behar da. Korrika asko egingo da, Nafarroako korrikalaririk onenak etorriko direlako, Espainia mailan oso ongi ibiltzen den jendea.

Agian bertakook ez dugu horrenbeste baloratzen, baina Altsasuko zirkuitua ikusgarria da.

Bai. Iruñekoek esaten dute Altsasukoa dela Nafarroan dagoen benetako kros bakarra. Lizarrako eta Tuterako zirkuituak... azkenean ez dira basoan jokatzen. Horregatik Altsasuko lasterketara hurbiltzera animatzen dut jendea. Goiz pasa ederra egin daiteke. 9:45ean proba herrikoia izango da, oso polita izaten dena, benetako krosa zer den probatzeko aukera bikaina. Gero Nafarroako Kirol Jolasetako erreleboak jokatuko dira, eta, azkenik, Altsasuko Krosa, Nafarroako Txapelketa izanen dena, ordu bata inguruan. Dantzalekun taberna dago, igandeko marianitoa eta fritoa dastatzeko. Beraz, ez dago aitzakiarik.

Eta Altsasuko Krosaren ondoren zer?

Ilbeltzaren 23an Nafarroako Pista Estaliko Atletismo Txapelketa jokatuko da Anoeta Belodromoan, Nafarroan pista estalirik ez dagoelako. Oraindik ez dakit ariko naizen, baina arituz gero 1.500eko lasterketan edo 3.000koan parte hartuko nuke. Ondoren, astetxo batez atseden hartuko nuke, neguko entrenamendu guztiak errekuperatzeko, eta maiatzean eta ekainean jokatuko den pistako denboraldia prestatzeko aurre denboraldia hasiko genuke.

TXAKUR KROSA Etxarriko proban izena ematea zabalik dago

Etxarri Aranazko Txakurkrosa bueltan da. Ohi baino beranduago –aurreko edizioak abenduan jokatu ziren, baina joan zen urtean ezinezkoa izan zen, pandemiagatik–, aurten ilbeltzaren 30ean jokatuko da korrikalariek eta euren txakurrek batera osatzen duten proba.

Aurreko edizioetan bezala, hiru modalitatetan jokatuko da Etxarri Aranazko Txakurkrosa: txakur krosa, txakurrari lotuta korrika egitea; bikejoringa, parte hartzailea bizikletan doa eta txakurra hari lotuta; eta scooter maila. Kasu honetan kirolaria gurpilak dituen patin moduko batean doa, eta txakur bat edo gehienetan bi patinari tiraka. Hiruretan ibilbide berbera osatu beharko dute parte hartzaileek, Etxarri Aranazko Kanpina irteera eta helmuga izanda bertako ingurune bikainetan prestatutako 6 km-ko zirkuitua.

Izena ematea zabalik dago, ilbeltzaren 27ko 20:00ak arte, *www.kronoak.com* webgunean. Proba batean izena emateak 16 euro balio du, eta norbaitek bi probatan parte hartu nahi badu, 20 euro ordaindu beharko ditu. Antolakuntzatik azaldu dutenez, proba antolatzeko "konpromiso osoa" dute, eta bete beharreko osasun neurriak beteko dituztela gaineratu dute.

Ziklo-krosean gureak oso fin

ZIKLO-KROSA Gorka Izagirrek Ormaiztegiko lasterketa irabazi zuen, Igor Arrieta Euskadiko 23 urtez azpiko txapelduna da eta sakandarrak txukun ibili ziren Xativan

Asteburuan Espainiako Ziklo-kros Txapelketak jokatu ziren Xativan. Eliteen mailako Ziklo-kros Txapelketan Kern Pharma taldearekin aurten profesional mailara salto egin duen Igor Arrieta Lizarraga uharte arakildarrak hartu zuen parte elite mailako proban, baina erorikoa izan zuen eta ezin izan zuen proba bukatu.

Kategoria txikietan Nafarroako selekzioarekin zenbait sakandar aritu ziren: Quesos Albeniz-Burundako Mikel Regil, junior mailan, eta Quesos Albeniz-Burundako Ekain Imaz, Iker Gomez, Iker Begiristain eta Hegoi Garcia, kadeteen mailan.

Kadeteen Espainiako Ziklo-kros Txapelketan Ekain Imaz 33. sailkatu zen, Iker Gomez 43., Iker Begiristain 75. eta Hegoi Garcia 90. Juniorren Espainiako Ziklo-kros Txapelketan nafar onena Mikel Regil altsasuarra izan zen, helmugara hamalaugarren postuan sartu eta gero, Galiziako selekzioko Ricardo Martin txapeldunetik 2:19ra.

Euskal Herrikoetan bikain

Abenduaren 26an jokatutako Aiarako Ziklo-krosean, aldi berean Euskadiko Ziklo-kros Txapelketa zenean, sailkapen absolutuan laugarren sailkatu zen Igor Arrieta, eta Euskadiko 23 urtez azpiko txapelduna izan zen, Lizarte afizionatuen mailako taldearekin jokatu zuen azkeneko proban. Proba horretan bigarren sailkatu zen Astanarekin bere azken lasterketa jokatu zuen Gorka Izagirrek.

Ilbeltzaren 2an jokatutako Ormaiztegiko Ziklo-kros ezagunean talde berrien jantziak mustu zituzten gure txirrindulariek. Bere jaioterrian txapeldun handia izan zen Gorka Izagirre (Movistar Team), eta Kern Pharma talde profesionalaren mailotarekin lehiatu zen Igor Arrieta laugarren sailkatu zen, 23 urtez azpiko lehena.

Sakandarren txapelketak

Izagirre, Ormaiztegin. LOBO ALTUNA

Arrieta, Aiaran. MARTIN EARLY

Gorka Izagirre eta Igor Arrieta. Gorka Izagirrek Ormaiztegin irabazi zuen eta Igor Arrieta Euskadiko 23 urtez azpiko txapelduna da.

Nafarroako selekzioa, sakandarrak tartean. NAFARROAKO TXIRRINDULARITZA FEDERAZIOA

Sakandarrak Nafarroako selekzioan. Xativan jokatutako Espainiako Txapelketan lan ona egin dute sakandarrek.

San Silvestre ezberdina

ATLETISMOA Osasun larrialdiagatik aldaketez josia jokatu zen 42. Altsasuko San Silvestrea. 158 korrikalarien artean Israel Arbizu etxarriarrak bere lehen garaipena lortu zuen, Ruben Mendietaren eta Aritz Etxeberriaren aurretik. Emakumezkoetan Izaskun Beunzak bere zortzigarren San Silvestrea irabazi zuen, Haizea Ramirez de Aldaren eta Leire Estarriagaren aurretik.

74 igerilari Zelandin

IGERIKETA Altsasuk Nafarroako Kirol Jokoen haurren mailako laugarren jardunaldiko saioetako bat hartu zuen larunbatean. Zortzi taldek eta 74 igerilari lehiatu ziren, primerako giroa zela. Sakana Igeriketa Taldetik Iraide Arrizabalaga eta Ane Beltran de Heredia 200 m estiloetan aritu ziren eta Lur Sasiain eta Araitz Otxoa 400 m libretan.

SAKANA IGERIKETA TALDEA

Anita Parker berrabiarazi da

'Reset' hirugarren diskoa kaleratu du Anita Parker taldeak, eta egoera berezia bada ere, aurkezpen bira egiten ari dira. Musika elektronikoa eta swing-a uztartu dituzte, taldearen hasieretara itzuliz. Bihar kontzertua eskainiko dute Lakuntzan

LAKUNTZA

"Nik esango nuke gaur egun familia bat garela. Pixkanaka sortzen joan den Anita Parker hori bakoitzak bere emanez sortu dugun zerbait da". Olatz Andueza Razkin Anita Parker taldeko kide lakuntzarra da, eta Anita Parkerren familia Ane Martinez eta Mikel Pirisekin batera osatzen du. Urte amaieran hirugarren lana kaleratu zuten: *Reset*. Anita Parker berrabiarazi delako: "Gauza asko atzean utzi nahi izan ditugu, kontuan izanda guk bizi izan duguna. Hortik ikasi dugu, baina gauza asko berrabiarazi ditugu, berriz hasi, eta beste modu batera egin ditugu". Bihar, ilbeltzak 15, larunbata, 19:00etan, Lakuntzako kultur etxean kontzertua eskainiko dute.

Taldea kantuetan, hitzetan eta landutako gaietan berrabiarazi dela azaldu du Anduezak: "Gure bizipenetatik abiatzen gara, gure inguruan ikusten dugunetik eta sentitzen ditugun gauzetatik". Gauzak beste modu batera egin nahi izan dituzte. Hirugarren lana 2020an pandemia iritsi aurretik prestatzen hasi ziren, eta konfinamenduan "gauzak" sortu dituzte. "Ez dut uste inspirazio momentu bat izan denik, azkenean, hor geunden eta aurrera atera behar genituen". Koronabirusaren aurretik eta konfinamenduan landutako abestiek osatzen dute diskoa.

Anita Parker taldea. UTZITAKOA

Bereizgarria

Musikari etiketak jarri behar direnez, "edo ditugunez", Anita Parkerren zeinua elektro-swing-a da. "Gure musikaren oinarria elektronikoa da, eta hortik abiatzen gara". Lehenengo diskoan musika elektronikoa swing-arekin uztartu zuten eta bigarrenean elektro-swing-a zegoen arren, beste buelta "bira" batzuk egin zituen taldeak. "Orain berriro esentzia hori berreskuratzen saiatu gara". Pop eta rock ukituak dituzten abestiak ere badaude diskoan.

Mundu mailan "beste erreferente batzuk" daudela azaldu du Anduezak. Anita Pakerren kasuan, taldekideen artean musika elektronikoa "kontrolatzen" duen jendea dagoenez, baita swing-a gustuko dutenek ere, biak uztartzea erabaki zuten. Disko oso dantzagarria kaleratu dute. Gainera, hiru formatutan eskaini dute: *Reset* diskoak biniloa, CDan eta deskarga digitalak egiteko aukera ematen du; hiru batean. "Musika entzuteko eta kontsumitzeko modua aldatu da. Plataforma digitaletatik entzuten da musika asko eta diska fisikoki nahi dutenak ez dira hainbeste. Zerbait berezia eskaini nahi genuen".

Zuzenekoak

Pandemiak eragindako konfinamendua eta mugen itxiera zela eta, estudioan sartu ziren lehenengo aldian elkarrekin behin entseatu gabe hasi ziren lehenengo abestiak grabatzen. "Teknologia berriei esker abestiak bidaltzen genituen eta sortzen joaten ginen". Diskoa ateratzea "zaila" izan dela esan du Anduezak.

Diskoa kaleratzeko asko itxoin dute eta zuzenekoak eskaintzeko gogotsu zeuden. "Pixkanaka lokal txikietan, babestu gaituzten lokaletan eta elkar babestu dugun lokal horietan emanaldiak ematen hasi gara". Egoera berezia bada ere, ez dituzte arazo asko izan zuzenekoak egiteko. "Asko itxoin dugu, diskoa kaleratu dugu, eta baldintza batzuetan zein besteetan kontzertuak eskainiko ditugu".

Azken kontzertua Bilbon eskaini dute. Edukiera mugatua zegoen, jendeak maskara jantzita joan behar zuen eta eserita zegoen. "Hori, edo bestela ezin gara atzeratzen hasi. Aurrera egin genuen". Egoera hoberena ez bada ere, "gustura" aritu ziren oholtzaren gainean. Bihar, larunbata, 19:00etan, kontzertua eskainiko dute Lakuntzako kultur etxean, eta Anita Parkerrek dena emanen du.

Denborarekin eta egoerak hobera egiten duen heinean "beste formatu bateko" kontzertuak eskaintzea aurreikusten du Anduezak. "Musikal jaialdiak, festak, txosnak…". Horretarako prestatzen ari dira ere.

Izaskun Fernandez Rubio aktorea 'Conservando Memoria' antzezlanean. EL PATIO

Maitasun adierazpen bat

Lau aitona-amonen "aparteko" istorio "xumeetan" oinarrituta 'Conservando Memoria' antzezlana egin du

ALTSASU

Izaskun Fernandez Rubio eta Julian Saez-Lopez Santamaria El Patio antzerki konpainiako kideak dira. Haien antzezlanen formatua berezia da, txikia, intimoa. Ikus-entzuleak gertu egon behar dute, "gaur egun pandemiak uzten duen neurrian, noski", azaldu du Fernandezek. Fernandezen bi aitonak eta bi amonak bizirik daude, ia 93 urte dituzte. Saez-Lopezek, aldiz, ez du aitona-amonik. Fernandezen familiarena ez da ohikoena, eta horregatik egun batean esan zion bere kideari: "Hiltzen direnean hileta erritu hori gutxiegi irudituko zait. Gustatuko litzaidake nire aitona-amonen buruzko antzezlan bat egitea nire maitasuna erakusteko". Hil arte ez itxoiteko esan zion Saez-Lopezek, "orain, bizirik daudela, egiteko". Egin zuen eta *Conservando Memoria* deitzen da lana. Ilbeltzaren 21ean, 19:00etan, Iortia kultur gunean izanen da, Josefina Arregi klinikako lagunak elkartearen eskutik.

Aitona-amonen bizitzen inguruan jakin nahian, Fernandezek elkarrizketak egin zizkien. "Itxuraz bizitza eta istorio oso xumeak ziren. Xumeak direlako, baina gauza asko kontatu zidaten; dena ez da obran ateratzen, baina hortik abiatu ginen". Iortiako areto txikian izanen da Altsasuko emanaldia, "oso intimoa". Objektuekin lan egiten dute, "kontserbekin". Fernandezen aitona-amonen memoria "gordetzen" dituzten ontziak.

Conservando Memoria antzezlana egiten konturatu dira, "gutxi gorabehera aitona-amona guztiek antzeko zerbait bizi izan dutela: pobrezia, landa lana…". Fernandezen kasuan haren lau aitona-amonak Aresekoak dira, "laurak; esan nien ez ote genuen Ameriketan edo senideren bat eta baietz esan zidaten, Obekurin izeba bat genuela! Obekuri Arabako mendialdean dago, Arasetik, Nafarroatik, oso gertu". Historia pertsonaletik unibertsalera joan nahi izan dute. "Nire aitona-amonaren historia da, baina belaunaldi batekoa da". Maitasun adierazpen bat: "Jakinduria, bizimodu edo mundua ikusteko modu hori galtzen ari da, eta ez diogu behar duen garrantzia ematen".

Kontatzen dituen gauzak ez direla "handiak" azaldu du Fernandezek. "Lokalera iritsi nintzen leher eginda eta Juliani esan nion nire aitona-amonen bizitzan ez zegoela aparteko istoriorik. Ez ziren inoiz herritik atera, ez zuten inoiz bidaiatu… Berak esan zidan adi egoteko, belaunaldi horretan antzeko bizitzak hori zela ohikoena, eta bizitza horiek beraiek apartekoak zirela".

Adineko jendearen bizitzak apartekoak izan dira, gaur egungo ikuspegitik xumeak iruditu arren. "Balorean jarri behar ditugu, kasu egin behar diegu".

Anna Sanmartí Baró eta Albert Segura Arcas, dokumentalaren zuzendariak. UTZITAKOA

"Gurea su geldoan egindako kazetaritza da"

ANNA SANMARTÍ BARÓ ETA ALBERT SEGURA ARCAS DOKUMENTALGILEAK

Altsasuko auzian oinarrituta 'Presumptes culpables: els altres casos Altsasu' aurkeztuko dute asteartean, Kataluniako TV3 telebistan

Erkuden Ruiz Barroso ALTSAASU

Anna Sanmartí Baró dokumentagileak eta Albert Segura Arcas kazetariak ongi ezagutzen dute Altsasu eta Sakana. Altsasu Auziari buruzko *Altsasu: Ferides obertes* dokumentala egiteko hilabete bat inguru egon ziren herrian bizitzen. "Herriaren erdian", gainera. Ikus-entzunezkoa 2019. urteko hasieran TV3ko *Sense ficció* saioan emititu zuten audientzia arrakasta handiarekin. ETBko *360 grados* saioan emititu zuten ere. Asteartean, ilbeltzaren 18an, Altsasuko auzia oinarri hartuta bigarren dokumentala mustuko dute: *Presumptes culpables: els altres casos Altsasu*. Adur Ramirez de Alda Pozueta eta Jokin Unamuno Goikoetxea auziagatik auzipetuak eta espetxeratuak Kataluniako zenbait auzien biktimekin elkartu dituzte. Segura, Sanmartí eta haien taldeak kazetaritza "arduratsua" egiten dute, ez dira goiburuetan gelditzen, eta "grisak eta ñabardurak" erakusten saiatzen dira.

'Altsasu: Ferides obertes' dokumentala sortu zenuten. Zergatik Altsasuko auziari buruzko dokumental bat egin?

Albert. Altsasu auziko gertakizunak 2016ko urrian gertatu ziren. Nik uste hasiera batean nahiko oharkabean pasa zela Katalunian. Baina 2017ko urrian Kataluniak historia garaikideko errepresio basatiena jasan zuen; erreferendumeko jipoiak. Katalunian beti izan dugu Euskal Herrian gertatzen dena begiratzeko ohitura handia, Euskal Herriko politikak Kataluniakoari begiratzeko izan duena baino gehiago. Momentu horretan asko begiratzen genuen. Lehendakariak erreferendumaren eta DUIaren bitartekaritza lana egin zuen, eta komunikazioa zegoen. Euskal herritarrei independentzia nola lortu erakusten ari geniela pentsatu genuen: armarik gabekoa, baketsua, *la revolució dels somriures*, irribarreen iraultza. *Happy flower power*. Eta momentu horretan ikusi genuen ezetz. Irribarreen iraultzarekin ez ginela inora joaten. Hor agertu zen mediatikoki auzia. Altsasuko auzipetuak jazarpen mediatikoa jasaten ari ziren, independentismoa azken hilabetetan jasaten ari zenaren parekoa. Orduan, ni Altsasura 2018an iritsi nintzen, Jokin, Adur eta Oihanek kartzelan zenbait hilabete zeramatzatenean. Catalunya Radiorako programa baterako izan zen. Hortik aurrera kasuan murgiltzen hasi nintzen. Saioak audientziaren erantzun oso handia izan zuen eta interesa zegoela ikusi genuen.

Auzia denboran luzatu zen. Nolakoa izan zen dokumentala sortzeko prozesua?

Anna. Momentuko dokumentazioa lanaren zati bat izan da beti, baina guk bertara zuzenean joateko apustua egin genuen. Beti egiten duguna da: gaira gerturatu, ahal den heinean, gaian ahalik eta gehien sartu, bizi eta elkarbizi. Altsasuren kasuan apustua oso argia izan zen. Bertan hilabete bat inguru pasatzea erabaki genuen. Oso ongi pentsatu genuen non instalatu. Erabaki genuen bi motxilekin joatea eta herri barruan sartzea jendea ezagutzera. Eta non ezagutuko genituen? Kaleetan, tabernetan... Herritarren arteko tratua izaten. Herritarretik herritarrera egiten. Toki horretara joatea eta ikustea, eta ulertzea zer gertatzen den. Alde batetik, titularrak daude eta, bestetik, eta are gehiago horrelako auzi batean, bizitza eta errealitatea daude.

Albert. Hasteko, nabarmendu behar dugu guk egiten dugun produktua. Gu ez gara toki batera joan, albistea egin eta ospa egiten dutenak. Gure filosofia, Anna, Vep eta hirurok osatzen dugun taldearena, su geldoko kazetaritza da. Hau da, lantzen dugun edozein gai pixkanaka lantzen dugu. Ez beste telebista batzuk egiten duten bezala iristen direla, zuzenekoa egiten dutela, dena suntsitzen dutela, joaten direla, eta gaia ahazten dutela. Guk su geldoan egiten dugu, hiru urte beranduago beste dokumental bat egitera iristeraino. Bestetik, gure ikuspuntua biktimen tokitik da. Alderdi politikoen presentzia txikia da. Hasiera batean, produkzioak, bidaia antolatzen hasi zenean, Altsasutik kanpoko hotel batera eraman gintuen, baina Altsasutik kanpo. Guk ezetz, tabernetan egon behar genuela. Azkenean, hotelez aldatu ginen, Annak eta biok hartu genuen erabakia, eta alde zaharraren barruan zegoen hotel batera joan ginen.

Anna. Su geldoan egiten den kazetaritza horri, kazetaritza arduratsua gehituko nioke. Hitz oso garrantzitsua iruditzen zait. Kontzientziarekin praktikatzen dugu. Arduratsua informazioa jasotzean; ez gara goiburuekin gelditzen, ez dugu titularrik edo sentsazionalismorik bilatzen. Jendea negarrez eta azalean jartzeko esaldiak baditugu; baina muntaian atzera botatzen dugu. Ez goaz horretara. Bestela, koloreak eta testurak itxuraldatzen ditugu. Hori oso argi dugu eta oso bereizgarria da. Ikusten duguna erretratatzen dugu. Ikusten dugunarekin bat egin edo ez. Hori da Albertekin bidaiak interesgarriak egiten dituena, eta horregatik itzuli gaitezke tokietara.

Auziaren aurretik Altsasu ezagutzen zenuten? Zer espero zenuten aurkitzea?

Anna. Ez. Eta pentsa kutsadura mediatikoa hainbestekoa zela batzuek esaten zigutela: "Baina zerbait gertatzen bazaizue...". Joan aurretik baziren momentuak Altsasura joan beharrean ez dakit nora joan behar ginela ziruditenak. Beraz, kanpoan gelditzen bazara zu ere ari zara eskema mediatiko horiek errepikatzen.

Albert. Mediatikoki Espainia eta Katalunia bi mundu dira, eta Anna eta biok Katalunian gaude. Guk hasieratik oso argi genuen ez zirela, esaten zuten bezalakoak, ETAko gaztetxoak edo Altsasu Beirut zela. Baina presio hori jaso genuen ere. Nire Altsasuko lehenengo bidaian, ez nintzen ausartu Koxkara sartzen. Taberna normal bat denean. Baina ez nintzen sartu. Bigarren bidaian Annarekin bai. Nire misioa zen frogatzea esaten zigutena benetakoa ote zen.

Hasieratik bigarren dokumental bat egingo zenutela ba al zenekiten?

Albert. Inolaz ere ez. Gehiagorako ematen zuela bai. Altsasuko istorioa eta injustizia erakutsita gelditu zen lehenengo do-

kumentalarekin. Sorpresa izan zen izan zuen arrakasta. Normalean baino askoz gehiago. %23 pantaila kuota izan zuen Katalunian, eta kanpoan interesa sortu zuen ere. Beste produktu batzuk ere egin dira, liburuak, telesaila... Eta urte hauetan geratu zaigun arantza Altsasuko istoria kontatzen ibili garela, zuzeneko protagonistarik gabe: haien abokatuak, gurasoak, lagunak, auzolagunak... Haien izenean hitz egin dute. Orain lehenengo aldiz hirugarren graduan daudela hitz egin dezakete norberaren buruaz. Espainiako espetxe instituzioekin hitz egin genuen Zabaian zeudenean elkarrizketatzera joateko eta ezetz esan ziguten ez zirelako baldintzak betetzen. Kazetari bezala zuzenean iturriarekin edo biktimarekin hitz egiteko aukera duzuenean, ezin duzu aukera hori alde batera utzi. Elkarrizketa eman izana eskertzen dugu haien agerpen mediatikoa asko mugatzen dutelako. *Sense ficció* bezalako programa batean konfiantza izan dute.

Anna. Pertsonalki, eta audientziaren alde garrantzitsu bat bezala, ikusi eta entzun nahi genituen. Nik uste guztiok geneukan kuriositate bat zela. Beraiengana joateko baldintzak eman zirenean, haien lekuan jarri ginen eta pentsatu genuen atera berri zirela eta ez geniela deituko. Haien gurasoak ezagutzen genituen modu pertsonalean ere ondoren herrian egon garelako nahi izan dugulako, eta ez genien elkarrizketa bat eskatzeko deitu behar. Itxoiten geratu ginen. Denbora eman genien.

Horregatik egin duzue orain?

Anna. Uste dut argi zegoela haietako norbaitek hitz egin nahiko zuela tokiren batean edo bestean. Guk entzun nahi bagenien, besteei berdina gertatuko zitzaien. Denok dakigu lehenengoak beti medaila lortzen duela; lasterketa mediatiko horiek badira. Baina guk ez genuen joko horretan parte hartuko. Oreka bat bilatu behar genuen; nola gerturatu eta nola jarri balorean. Zaila izan zen.

Albert. Gure estrategia ez da inoiz izan presionatzea. Errespetu handiarekin joan gara. Bai dokumentalarekin bai lekukoak lortzeko moduarekin. Parte hartu duten lekuko guztiek kontzienteki parte hartu dute, presiorik gabe, hausnartzeko denbora izan dute, baita atzera egiteko ere. Kontziente gara prozesuarekin sufritu dutela, eta horrek behartzen zaitu errespetu handia izatera. Horren erakusle da dokumental honetan bi gazteen testigantzak agertzen direla. Ez bederatzi, ez zazpi; bi. Agian indartsuago daudenak edo urrats hau emateko indarrarekin sentitzen direnak. Beste hedabidetan adierazpenak eman dituztenekin harremanetan jarri gara, eta jakin badakigu oraindik gaizki pasatzen ari direnak badaudela, eta ez gara haiekin harremanetan jarri.

"PROTAGONISTEKIN DOKUMENTAL BAT EGIN DUGU; BAINA URRATS BAT GEHIAGO EMAN DUGU"

Altsasuko auziko bi auzipetu agertzen dira, beraz. Zer kontatzen du dokumentalak?

Albert. Annarekin dokumentala zuzentzen hastean erronka izan zen: zer gauza berri kontatuko dugu? Jendeak badaki zer gertatu zen Altsasun. Protagonistekin dokumental bat egin behar dugu, baina urrats bat gehiago emango dugu. Ez dugu kuxkuxeatu. Ez dugu egin: "Ea Jokin zer gertatu zen Koxkan? Zuk zehazki zer egin zenuen? Eta zu, Adur, bertan zeunden edo ez?". Hor ez gara sartu. Gau hartan zer gertatu zen galdetu diegu, baina dokumentalaren zati txiki bat da. Dokumentalaren tesia zera da: Altsasu Auzia proben banku edo laborategi bat bada ikusteko Espainiako iritzi publikoak tabernako istilu batengatik gazte batzuk terroristak direla sinisteko, hori sinisten badute, edozein gauza izan daiteke terrorismo. Dena terrorismoa bada, eta terrorismoaren aurka denak balio du, estatuak hamarkadaz erreprimitzeko erabili duen estrategia da eta oraindik ere baliogarria da. Hiru urte beranduagoko iritzi publikoak ez du bakarrik sinistu, baizik eta estatuaren beste toki batzuetan aplikatzen hasi da estatuak doktrina hori: Katalunia. Taberna bateko istiluengatik kartzelara joan baziren, Gobern-eko consellerrak ere kartzelara joango ziren; gertatu zen bezala. Orain kartzelatik atera direla eta hau guztia kartzelatik bizi izan dutela, jakin nahi dugu nola ikusten duten Katalunian 3.000 errepresaliatu egoteak. Katalunian auzi pila bat daude irekita. Oraindik jendea urriaren 1ekoa ordaintzen ari da eta sententzien esperoan dago. Orduan, jakin nahi izan dugu bi gazteek nola bizi duten egoera hori. Altsasuko gazteak Kataluniako aktibistekin elkartuko dira, hitz egingo dute. Doktrina berdina sufritzen duten jendearekin elkartuko dira.

Zeintzuk dira pertsona horiek?

Albert. Estrategia desberdinetako biktimak, disidentzia jazartzeko terrorismoaren erabilpena erabili duten kasuetakoak. Esaterako, Judas operazioko atxilotuak, terrorismoaz leporatzen zaiela eta epaiketaren esperoan daudela. Polizia bati ustezko eraso batengatik bost urteko kartzela zigorrera zigortutakoa, probarik gabe, poliziaren hitza manifestariaren hitzaren aurka bakarrik. Hor ezagutuko dute Xènia Garcia oraindik ez dagoela kondenatuta baina hiru egun kartzelan egon zen manifestazio batean ustezko istilu batzuengatik eta Marcel Vivet bost urtera kondenatutakoa. Jordi Cruixart ezagutu dute ere, bi auzien espetxeratzeak bat egin zutela eta Madrilen elkartu ziren kasuren batzuetan. Erreferendumeko eskola bat ere bisitatuko dute urriaren 1 bertatik nola bizi izan zen ikusteko.

Anna. Dokumentalaren gaia errepresioa bera da. Galdera asko planteatzen dizkiegu geure buruei. Zer da aktibista izatea? Haiek joango dira ezagutzera. Lehenengoa agian politikoagoa zen, orain beste pertsegitutako aktibismo asko ikusiko ditugu, ez duela zerikusirik auzi politikoekin.

Adur Ramirez de Alda eta Jokin Unamuno altsuarrak Xènia Garcia eta Marcel Vivetekin Modelo espetxean dokumentalea. UTZITAKOA

BAZTERRETIK

MIKEL MAIZA RAZKIN

Gabonetako miraria

Gabonak pasa berri dira. Ez al duzue nabaritu? Festak, bazkari bereziak eta mirariak baita ere. Aleluia aleluia!!! Hosanna zeruan, hilda zena gurekin bueltan baita berriro!!! Zer dira aurpegi horiek? Ez pentsa Gabonak Aste Santuarekin nahastu ditudala, lagunok. Ez bainaiz Mesiasez hitz egiten, ene zuhaitzaren azpian aurkitu dudan komikiari buruz baizik! "GTO" komikia bueltan da!

Hala da, komiki japoniar hau 1998an jaio zen Toru Fujisawa mangakaren eskutik. GTO (Great Teacher Onizuka) Eichi Onizukaren istorioa da. Onizuka makarra hutsa da. Liskarretan pasatzen ditu egunak, baina orain bere bizitza aldatu nahi du. Irakasle bihurtuko da, eta bide batez, bere lanbidea erabiliko du ikasleekin ligatzeko. Ohiko japoniar irakaslea, bada. Traba pila bat aurkituko ditu eta hankaz gora jarriko du institutua, baina bihotz onekoa denez, Onizukak ez dio ezeri beldurrik.

Argitaratu zuten urte berean sariak irabazi zituen, baina hona 2008an iritsi zen MangaLine argitaletxeari esker. Nik kasualitatez aurkitu nuen liburutegi batean, baina beranduegi zen. Zoritxarrez, MangaLine argitaletxeak ez zituen esperotako salmentak izan, eta bertan behera utzi zuen bilduma. Bilduma amaitu gabe geratu zen. Gaixoa, komiki batentzat ez dago ezer are krudelagorik. Amaitu gabeko komikia irakurtzea tomate gabeko makarroiak jatea bezala da. Zertarako irakurtzen hasi ezin baduzu guztiz gozatu? Halakoetan internet ahalguztidunaren laguntzara jo beharra daukagu komikia irakurtzeko. Baina ez da berdina paperean edo pantailan irakurtzea. Are gehiago komikien kasuan.

Ni neu asko poztu naiz. Hala ere, hau ez da erdizka utzitako bilduma bakarra. E... Planeta de Agostini? Bai bai. Zuri diotzut!! Noizko "Yu-Gi-Oh!" mangaren azken 12 liburuak? Urte asko dira jada bilduma bertan behera utzi zenutela! Ba ez baduzu komiki gehiago atera nahi, utzi besteren batek argitaratzen, kontxo! Izan ere... bufa, haserretu nauzue jada!

11 GALDERA

"Abendukoa bezalako uholderik ez dut inoiz bizi"

Igande gauean zeruari begira jarri zen berriz ere Ana Fuste Agirre ile apaintzaile ziordiarra. Hamar urtetan bi uholde izan ditu errekaren ondoan duen lokalean, azkenengoa abenduaren 10eko uholdeetan

Erkuden Ruiz Barroso ZIORDIA

1 Euria egiten duenean ibaiari begira egoten zara, ezta?
Eta mendi tontorrean elur pixka bat egiten duenean, eta gero euria hasten duenean eta mendietako elurraren desegitearekin elkartzen denean, hor izugarria izaten da.

2 Nola bizi dituzu egun horiek?
Gaizki. Oso urduri. Gainera, beti gauean hasten da ura igotzen. Ile apaindegira jaisten naiz, ile apaindegiari itsatsita bizi naizelako, eta orduero jaisten naiz nola dabilen ikustera. Agian askotan ez da sartzen, aurreko egunean bezala azkenean ez zela sartu, baina taulak jarri, gauza pila bat kendu ura sartzen bada ez puskatzeko... Urduritasunarekin.

3 Nola prestatzen zara? Nola dakizu noiz hasi prestatzen?
Aurten Ziordiko Udalak dike moduko bat egin du lorategiaren eta ile apaindegiaren artean ura hortik ez pasatzeko. Oso txarra zen zonalde hori. Gero beste dike moduko bat egin dute taula batzuekin, eta erreka igotzen ari dela ikusten dugunean gurasoak eta auzokoak joaten gara eta taulak jartzen ditugu ile apaindegira eta etxetara ez sartzeko. Udalak Whatsapp bidez mezu bat bidaltzen du esanez badirudiela egun horretan uholdeak egon daitezkeela eta zakuak toki batzuetan daudela hartzeko. Batzuetan izaten da zeruari begira egotea ea gelditzen duen. Ez dago besterik. Interneten ere begiratzen dut, batzuetan asmatzen dute eta beste batzuetan ez.

4 Zenbat aldiz sartu zaizu ura?
Sartu triskantza eraginda, bi aldiz. Orain dela bi urte abenduaren 13an, Santa Luzia egunean, eta 2021an abenduaren 10ean. Beti Santa Luzia inguruan. Ez genuen uste hainbestekoa izango zenik, etengabe izan zen, ez zen gelditzen. Astelehenean ere oso urduri egon ginen; igandetik asteleheneko gau horretan. Ez genuen espero eta taulak eta dena jarri genuen badaezpada, eta ile apaindegiko gauza batzuk igo nituen.

Ana Fuste Agirre, ile apaintzaile ziordiarra. UTZITAKOA

5 Aurretik horrelako uholdeak ezagutzen zenituen?
Ni errekaren ondoan bizi izan naiz beti, eta uholdeak bizi izan ditut. Baina abendukoa bezalakoa ez dut sekula ezagutu. Inoiz ez. Ile apaindegira leihoetatik sartzen zen ura. Etxe eta etxabe askotara sartu zen, ermitara iritsi zen ere. Herria itxita egon zen ere. Izugarria izan zen.

6 Eta gero dena garbitu behar.
Auzolana garrantzitsua izan da. Azkenean, bi bonba jarri genituen. Lastadikoek ekarri zidaten goizeko ordubietan beste bonba bat, batekin bakarrik ez genuelako ura ateratzen. Bonba jarri, eta itxoitera. Ile apaindegian ura iragazi da garbitoki zaharra zena delako. Beheko zonalde guztian hamahiru isolamendu kapa jarri genituen, baina ura igotzen joaten da eta iragazten joaten da edozein tokitik eta geldiezina zen.

7 Gauzak galdu dituzu?
Gauza materialik ez. Baina bai altzariak eta erakusketariak. Gauza horiek ezin dituzu momentuan mugitu. Gero hormak eta errodapiak zonalde batzuetan lurretik askatu dira. Puskatu dira. Ateak ere puskatu dira. Urak hartu zuten eta handitu dira.

8 Beraz, ileapaindegia itxita egon behar izan zuen, ezta?
Bai. Ura ostiralean bazkatzeko orduan gutxi gorabehera utzi zion sartzeari, eta gero dena jaso behar genuen, garbitu... denbora pila bat dakar. Orain margotu behar da. Irekita dugu, baina margoan ikusten dira uraren markak. Hezetasun kengailu bat jarri dugu hezetasun guztia kentzeko eta margotzen hasteko. Aurrekotik utzi nuen ateko markoan ura noraino heldu zen ikusteko, bitxia delako.

9 Dirulaguntzak jasoko dituzu?
Bai, orain konsortzioan sartzen da. Nafarroa zona katastrofikoa izendatu zuten, eta kontsortzioa sartzen da. Aurrekoan aseguruak egin zuen.

10 Ekidin daiteke?
Horren aurrean ezinezkoa zen. Ura maila horretara iritsita, berdin du zer jartzen duzun. Gero errekak oso zikinak daude, ez dituzte garbitzen, eta geroz eta zikinagoak daude. Errekaren emaria hamabost metro ingurukoa bada, urte hauetan zikinkeriak eta sastrakak bost bat metro jan dituzte.

11 Lekualdatzea pentsatu duzu?
Lokalak historia dauka. Ziordiko Udalak enkantean jarri zuenean aitonak eskatu zuen horrengatik. Aitonari eta amonari ilusio handia egiten zien etxean gelditzea. Duela bi urtera arte ez zen inoiz ura sartu, eta oso ondo. Azkeneko aldian pentsatu nuen: "Itxiko dut eta beste toki batean irekiko dut!". Baina hamar urte ditut, eta dena berria dago.